


V  
88





Equal  
5.000



R. 2916

N. M. 2872

R. 34805

DTU  
17788

Antero Apaolaza

--Barrea'tar N.--

90  
/ 9

UGAZ-AMA → → → → →  
← ← ← PACHIKO CHERREN


*La Madrustra, ta El Judas da  
ta casa itenaz Trueba'k erderaz  
-- egindako ipui oek, Euskal --  
--- Esmaleu'k argitaratu ditu ---  
----- euskeraz -----*



1917

DONOSTIA'N

MARTÍN, MENA Y C.<sup>as</sup>REN ECHEN.



Larrea'tar II.

21

5


# UGAZ-AMA

*La Madrastra izenaz Trueba'k*  
*erderaz idatzi zuan ipuia da au.*









# UGAZ-AMA

*Ama gabe atsegiltik es da.*

--¡Artu! ¡artu! ¡ortxe! ¡gaur puskatuko aut!

--¡Oi, oi, oi, oi ene! Azketsi ama, ona izango naiz-ta.

--¿Zer dezu, nere maitea? Zure begi bi-guiñak negarrez betetzen ari dira, zure ma-sail zuri-gorriak kalbeliñe margo gorri-illuna artzen.

--¿Nola ez ba izan arpegia suz-gorrituta, nola ez begiak negarrez lerturik umetxo ori ain gogorki artzen dakustanean?

--Zuzen zaude, nere ipuiñen etorri ezin-garbiagoa.

--Andre orrek aberien erraiak ditu, ez amarenak.

... --¡Amarenak! ez izen deun au deungetu

andre orrek duelakotz. Jainkoaren umetxoa ain gaizki artzen duana ezin liteke ama izan. Egiz ama diranak bailiteke umeak itzez gaizki artzea, ¿baña gaitz egin? ¡ñoiz ere...! Entzuzadazu, nere maitea, entzun.

Ni ta nere anaiak aitaganatu oi giñan sarritan negar itxuradun arpegiak jarrita.

—¿Zer dezute? — gure aitak galdetzen zigun.

—¡Jen! ¡jen! amak jo gaituala—erantzuten giñion.

—¡Gizajoak!—esan oi zigun irri-parrez gure aitak—¿la zenbat ezur puskatu dizkitzuten?

Entzunik au guzia gure amak, barren aldetik deadar egiten zuan:

—¡Ilko ditut! ¡ilko ditut!

—Bai, bai—esan oi zuan gure aitak ixilka-ixilka—amaren zigorkadak ez dizute ezurrik puskatuko, ezta aterako ere odolik.

Oroipen auek umien iltzalle diran ametan oldoztera naramate sarritan; eta onelakoak umeak dituzten guziak oi dira.

¡Egia da! ama diranak il oi dute bai...

ollotegian dan ollorik onena, umeak buruko min antza dutenean salda ona egiteko.

¡Ama gajoak! ¡ama deunak! ¡gaitzerako mingaña bakarrik eta onerako eskuak, go-goa, biotza ta bizitza dituzutelarik, berau ere gutxitzat jo oi dezuten amak!

Ama diranen gaizkeria norañokoa dan entzuizu.

— ¡Bhurri, alperral!; i aizela-ta ilko nauk.

—Utziozu, andrea, umeak nortzuk diran baidakigu-ta.

—¿Uzteko? Ezurrak puskatuta utziko det nik au. Dasazut, andrea, nai ta ez ilko de-tala.

Mutikoak, aldameneko ormari bastertuta, begiak beratuta, arduragabe alea atereaz, bestela berriz eskugañaz ala soñekoaren beso-muturraz malkoak legortuaz, bere il-epaia entzuten du; borreroa ordea epaia be-tetzera jun ordez, maia ipintzera dijuu.

—la, jauntxo, atoz bazkaltzera.

—Ez det nai bazkaririk.

—Obe: ez dik orrela gaitz-egingo.

Jartzen da maian ama, ta eper-kutzua balitz baño areagoko siñuak egiñaz, kollara-

kada batzuak artzen ditu; azkenik, kollarea mai gañera jaurtita, jaikitzen da deadar-egiñaz:

—¡Seme! ¡auxen dek bazkal-garaia igarorerazi diakena! Ator jatera, ta ¡begira gero berriz jaikierazten naukekan!

—Eztet gura. Buruko miña det-eta.

—¿Ikusten? ¿ikusten ire kasketaldiak dakartena, txepel-ori?

Semea il-zorian balego baño areago, saminduta lasterka bereganatzen zaio ama; pixkana-pixkana Jainkoaren umetxoa aztertzen du; mantal ertzaz malkoak legortzen dizkio; muin-egin-ondoren, bekokian ur-ozpiñetan bustitako zapitxoa jartzen dio; ta umea makal-xamar arkitzen baida maian dagona ezin jan duan ezkeroz, onen antzeko gertakaritarako jaki-tokian gordeta dauzkan gozoetatik bat ematen dio.

Elbarritua ama da, ta semeari zapitxoa jartzen dio.

Ara amen gaizkeria... umeak iltzen dituzten amena, ezurrak puskatu gabe uzten ez dituzten amena.

Ez, ez, itzez da egitez umea puskatzen

duan andre ori, ez da ama; ugazama bai noski.

Biguña ta deuna dan guzia nere ipuiñetan aintzatu det, zatar-gaiztoa dan guziaz gaizki esan det.

Nere maitea: negarrez urtzen dauden zure begi oiek, umien miñaz negar-egiteko esaten didate; ¿zergatik nik min auek aitzu ote ditut?

Entzun nazazu, nere atsekabe-alai-aldietako laguna, aitzu nuana ordainduko det-eta.

Gure etxeko atari ondoan masti ederra zan; goian begon gure amamak nere anaiari ta neri oso ipuin pollitak edestu oi zizkigun antxe uda-berri arratsalde gozoetan, bidena-bar txerra iruten ari zala, bada andre on ark esan oi zuanez, jederki esana!:

—Etsai gaizto auek nere berriketaz emen jolasten egotea, intxaur-kerixetan gora soñekoak puskatuaz igotzea aiñakua baida.

Beingo arratsaldean, gaizki ere ez baña gaixo zegon gure ama; ni ta nere anaia gure amamaren ipuiñak entzuten; noizik-bein bere edestia usten zuan gu lagata gaixoarenganaturik «¿nai al dezu zerbait?» «¿nola zaude?»

galdetzeko, oea zuzentzeko, ta berriz jarrita txerra iruteko.

—Umeok—esan zigun etorri auetako batean—Jaungoikoa'ri otoi-egiozute, zuen ama sendatu dedin; Jainkoak bereganatuko bali-zukete, ¿zer gertatuko litzaizukete?

—Onela ezkerok—erantzun nion nik—gure aitak bestea ekarriko liguke. Jontxo'ri ere berea il zitzaion, eta dasa ugaz-ama izena duan bestea ekarriko diola aitak.

Nere erantzun gaitzgea entzutean irri-parre egin zuan, eta nere anaiak deadarka esan zuan:

—¡Ugaz-ama! jene, ori izen itsusia!

—Izen ori duten batzuek—esan zuan gure amamak—oso onak dira, *ama* izena dutenak bezin onak; Erroma'ko Doipuruak bezin gutxi ordea.

—Amama, ¿ta zergatik esan oi da, «ugaz-zama, izena begiratu?»

—¿Ta zergatik esan oi da ere «ugaz-ama, goteungeak darama?»

—Goteungeak eraman oi ditualako, gaitzera lenengo ta geztokira ondoren.

—¡Ene! jau bildurra!

—¡Ene! ¡ori gaiztoak!

—Amama, ugaz-amei dagokien ipuiñik  
¿bai aldakizu?

—¡Orixe bai, nere umetxoak!

—Ia, ba, edestu zaiguzu bat.

—Edestuko dizutet ba, bi gauza azal-  
tzeko.

—¿Zeintzuk dira berauek, amama?

—Zori gabe andia dala ama gabe geldi-  
tzea, eta Jainkoa'k bere laguntza iristen die-  
la argal eta laguntza gabiei, onetarako gai  
badira.

Gaisoari beste ikustaldia egin eta berriro  
matspean jarri zan gure amama; bai gu ere  
bere oñetan belarriak zabalik, entzun-gura  
ezin andiagoz, gure arpegitxo zuri-gorria ja-  
sota, atsoaren itzak bere ezpaiñetatik atera  
baño len asmatu nai bagiñuz bezela.

## II

Iru nexka goizeko argia bezin ederrak  
zituzten nekazari gizontsu Martin, eta Do-  
meke, Galdames'en bizi ziran: zarrenaren



izena Isebel zan, erdikoarena Tere, ta txikienarena Mirentxu.

Beingo arratsaldean alboko min andia bai zuan Domeke'k, gajoak bere senarra deituta esan zion:

—Martin, berealaxe ilko naiz-ta zoaz Jainkoarren jaupari billa; baliteke ordea zu etorri baño len iltzea, ta bada ezpada ere aurrez nere onua entzuzazu. Zu ni gabe gelditutakoan, nexkak oraindik etxeko ardua izateko aña ez diralako, emakume baten bear izango zera etxeko lanak egin ditzan, eta gaztea baizera berriz ezkonduko zera. Ez dizut eragotzi nai berau, emakume gaberik txukuntasuna eziña da-ta; baño Miren Nes-kutsaren izenean arren dasazut, nere biotzeko alabatxoei ugaz-ama ekartzera, ez dezaiozula utzi jotzen, ezta zuk ere jo, umiei dagokien lenengo agindua—au da, esana egitea —betetzen duten artean.

Martiñ'ek Domeke'ri iltzerik ez bururtzeko esan zion orrenbesterañoko gaitza etzala-ta; gero Jaupari Jaunaren billa jun ordez sendagillearengana jo zuan, onua bete

bearra zorigabez gertatzen bazan ondo bete-ko zuala andreari zin-egin ondoren.

Etzan ez Domeke gaxoa gezurtatu. Bai da amak ia illik daudenean il-berria ematen dien gotzona, lagundu ditzaioketenen zaipean beren umeak uzteko beta izan dezaten. Martin sendalariarekin etxeratu zanerako, Domeke donokiratua zan, alaba gaixoei zin-eragin ondoren aitari ta ama-ordekoari beti esagingo ziotela.

Igaro ziran egunak, baita illabeteak ere, ta nexka zarrenak oraindik amabi urte etzitalako, Martiñ'en etxea ziara narrastua zegoan.

—Martin—esan oi zion nekazari gizon-tsuari auzoko Erramona'k—ez izan zoroa; Jainkoak nai bezelako emakumea billatu eza-zu, ugari bai dira, eta ezkondu zaite, umetxo oiek eta zuk txukuntasun pixkat izan deza-zuten.

—¡Nik nere alabei ugaz-ama ekarri!—erantzuten zuan Martiñ'ek. —¡Ugaz-ama nik, donokian dagon emakume deun ark aig maitelaztan izan zituan alabei! Ixillik zaude, ludiko emakume bear ez naiz-ta.

Aita saminduak, negar-malkoak zerizkiola, alabatxoak bereganatzen zituan, musuz bete gero ta pitxi ta gorrixa ziran ille aiek leuntzen zituan, baita soñekoak arabakitu ere; ezagun zan amaren esku arduradunik etzutela, narrasak zeudelako.

Illabeteak lenengo ta urtea ere igaro zan, eta Martiñ'i garbi azaldu zitzaion, gaizki, oso gaizki zegoala etxea begiratzeko emakume gabe, etxeko-andrak izaten erakusteko iñor etzutelako nexkak, etzutelako soñekorik josten, etzutelako janaren ardurarik izaten, ezta olloak zaitzen eta egin biar dan bezela eztabaidan erosten ere; deus ere burubidez egiten etzalako.

Egia da Martin gauza guzietan sartzen zala: augatik ez dute ez gizonak arrokeriz egin nai ezik; baña gizonak gizon izateko eta emakumeak emakumetzarako jaiok izan, eta batzuetan asirik Martin erratillokada sukua ebakitzen, erratilloa puskatzen zuan.

Neskame asko ere artu zituan, baña etxeko ardura baño senargaiena geiago baizuten, Martin gizajoa, esan oi dan bezela, gizona bai ta galtzik ez zegon. Noizik bein lagun-

tzen zion auzoko Erramona'k, ia amaitu diran andre burutsu aietakoa zandak; baña gaioak bere etxea ere begiratu bear izaten zuan, eta berea urkoarena baño aurrerago izan.

Martin bein etxea zuzentzeko itxadokintza gabe jarri zan atarian oldozten, oldozten, ia berriz ezkondu gabe aurrerakoan iraun zezakeala bururatzen ote zitzaion; baña oldoztea alperrik zan; billatzen zuan bidea ezin zuan arkitu. Itxadokintzagea ezin andiagoa zanean, orra non igaro dan Martiñ'en aurretik, uritxoan oso izen ona zuan neska gaztea; agur egiten dio, ta asi da abiatzen abestuaz.

—Jokiñe—esaten dio bereala Martiñ'ek — nere alabatxoak ez dute maite dituan amarik, ezta irakasteko iñortxo ere; gurean ez da zaitzeko amarik. ¿Nai al dezu nitzaz ezkondu?

—Eta «orixe da ateraldia», «ni baño ederragorik baidezu», «ezin esan baietz, lotsatzen naiz-ta» erantzunaz, Jokiñe'k ezkonitza eman zion.

Andik iru astera toki artan bertan zintzarrri ots izugarria zan.

Egun batzuek geroago Martiñ'en etxea zillarrezko katilloa bezin garbi zan.

Igandetan Martin txadoneratu oi zan, elurra baño zuriago ta España'ko Bakaldunarena baño obeto burdindutako alkandora jantzita.

Nexkak egunoro ikastolara zijoazten, txoriak bezin alai, kerixak bezin gorri, ta ain txukun ikustean, Jainkoa'ren eguzkia agiri zala esan ziteken.

*Minino* katua, lenago ez zuririk eta ez beltzik iñork ematen etziolako abots illunaz *¡miau!* egiten zuana, orain pillota bezelaxe biribiltzen ari zan, ta eguzkiak jotako urak bezela dis-dis egiten zuan; etxeko-andreak aurrean ipintzen zizkion katillukada esnekutsuak ere ezesten zituan.

Oloak arrautzak egifen eta kukurruku jotzen asiak ziran.

Baita lenago neke-izardiz urko zailletan arrapatutako erbi bat-beste janda bizi zan *Leon* txakurra ere bizkera obeari emana zegon bere jabien etxea aldezten zuen mats-

pean lo egiñaz. Gauza guziak alaiak ziran Martiñ'en etxean, norbaitek onetsi balu bezela.

¿Domeke'k donokitik onetsi ote zuan?  
¡Ez jakin!

### III

Uztail-arratsaldea zan. Martiñ, emaztea, alabak eta semea jaikirik maitik, eman zien ogiaz Goiko-Jauna'ri eskarrak egin ondoren, etxe-aurreko kerixe-itzalpera atera ziran bazkal-ondokoa egitera.

— Amamatxo — esan nion emen gureari, ipuiña onerañotzean — oker zaude. Bere emazte alaba ta semearekin atera zala Martin esan dezu. ¿Nola ba ori, Martiñ'ek se-merik ezpaizuan?

— Martiñ'ek eta Jokiñe'k izarra baño ede-rrago zan urtebetedun semea zuten.

— ¿Ta bere izena, amama?

— Irea bezelaxe, Andonitxo. Martin alabatxoei kerixak arrapatzen ari zan, umeak berriz kerixe onetzaz belarrikoak egiten, eta

Jokiñe umea besotan gora jasota dantzan eragiten...

—¿Ta zergatik dagite ori andreak beren umiei? Guzi-guziak ori egiten ikusi izan ditut. ¿Jolasteko?

—Ori aitzikia da... egia beste au da; bere umea naiz ta kelarra baño itsusiago izan, donokiko goi-gotzona duelakoz ez dagon andrerik ez baida, arro-arro egiñik oi dira, ta biztoki guzitik begiratzea nai lutekelako... Utzi nazazute ordea geldik ta ez berriz erasan, zarragoei aotik itza kentzea aje txarra da-ta. Jokiñe oso ama zabala zan-ta, umeari zorakeriak esaten, munka ta estutuka asi zitzaion, bekozkoa jarrita ixko txikia bezela negarrez beronek ekiteraño.

--Ez negar-egin, nere bildotxa—esaten zion amak, andre zoroa bezela deadarka.—  
¿Zergatik negar egin, zillarra baño ederrago ta amaren aintza aizelarik? ¡Ene! ¡Auxe da seme ederra Jainkoa'k eman ditan semea! Martin. España'ko Bakaldunak ere onen ederrrik ez du, ¿ezta? ¡Begira, begiraiozu, parrez asi da! ¡Ene! ¡Onetsi bedi ire aotxo! ¡munka urtuko ituzket!

Artu zuan Martiñ'ek besoetan umea, ta asi zan maiteki igurtzitzen. Nexkak, txikiena batez ere, belarritako kerixazkoak alde batera utzirik, beren barruratuta gelditu ziran. Martiñ'ek ezaguturik, utzi umea azkar-azkar eta amari eman zion. Jokiñe'k maitegetzat jo zuan musinka berau egin zualako, ta nexkai galdetzeko zegon ia zergatik bekozko ura, Mirentxu'k, negar siñua aoz egiñaz. beso-muturraz malkoa legortu ondoren, batenbat bera jarraika balego bezela aitaren anakak eltzera jun zanean.

—¿Zer den, nere biotza?— galdetu zion Martiñ'ek.

—Ez nazula maite orain—erantzun zuan nexkak geroago ta negartiago.

—¿Ez autela maite?—esan zuan Martiñ'ek, maite-igurtziz josten zuala. ¿Nola azalden au, txoro ori, i ta ire aizpak aitaren omena baizerate?

—¡Ara berriz beste alperra oraindik sei urte ditualarik!—deadar egin zuan Jokiñe'k geroago ta muturtuago.

—Utziozu—esan zuan Martiñ'ek aizkide



antzera.—Ume gauzak dira oiek; besteak igurtzitakoan guziak ikusi-eziña oi dute.

—¡Ikusi-eziña! ¡emango diot ba, sei bat makillada atzean ezarrita!

—Jokiñe, ez dezu orrelakorik egingo.

—Ez jakin ori. Beste alper oietzaz ez dizut ezer esan nai; muturra jarri dutela dirudite. Ez da ordea berena obena, maitekiegia artzen dituan aitarena baizik.

—¡Emakumea! Neskutz guziz Deuna'rren, aserreak aurreratu ditzagun, guk billatu gabe ere naikoa ematen baidizkigu Jaungoikoa'k.

—Auxe bera dasazut nik ere. Oixe da maite-aldiak biotzeraño sartzea. Egiz bai esai oi dala, eskartsu izatea aiña baidala eskartsutzat jotzea.

Au esatean Jokiñe negarrari eman zitzaion Madalene baño areago, ta umeari munka ta malkoz beteaz jarraitu zuan:

--¡Nere biotzeko semea! ¡bai zorigabe egin auela Goiko-Jaunak! ¡Amaz osteria iñork ez au maite!...

-- ¡Andrea!—deadar egin zuan Martiñ'ek eramatasun guzia galduta.—Ez esan buruga-

bekeririk, eta ez atera nere onetik... ¡Ez detala maite nere semea!

—Ez det betaurrekorik bear, agiri zaizkiten gauzetarako.

Ikusirik Martiñ'ek bere emazteak etzuala nai entzun zuzena zanik, ta bera eramakorra ta ona zalako geiegi egiten zuala, ta onelako istilluak egunorokoak zirala; ixildu zan pixkatean; gero, aserregetzeko alegiñak egin ondoren, abotsa jasota esan zuan:

—Jokiñe, entzun, eta ez egundaño aitzu esango dizudana. Ez da iñor biztōki ontan nik aiña urteak maite dituanik, ezta nik aiña emaztea maite ta agur-egiten dionik ere; ez da neri bezela adimenan sartu zaionik, berez utzia ta argala dan emakumeari laguntzeko bearra ezarri diola Goiko Jauna'k gizonari; ez da ordea iñor ere, gauza ontaz ni bezin ziur dagonik: Jaungoikoaren gaitzetsia, ildakoak aizten dituan gizonaren gain eroriko dala. Deunki bizi ta il zalako Jainko-atsegiñez betetzen dagon andre batek, zu maite zaitudan bezela maite izan nuan andre batek, Jaungoikoaganatu baño une batzuak lenago esan zidan: «Miren Neskutza'ren izenean da-

szut, ugaz-ama ekartzen badiezu nere alaba kufunei, ez uzteko jotzen, ta ez zuk ere jotzeko, umien lenengo egikizuna, au da, esana-egitea, betetzen duten artean». Nik andre ari zin-egin nion, beteko nuala bere agindua; beraugatik, betetzera gertu nago; ez det inor ta inolaz ere utziko nexka oiek jotzen, iltzen zegoan amak nere ardurapean utzi ta nere alabak diralarik, gizon-emakumien maitasun eta laguntza berenganatzeko izenik deunena, bidezkoena, au da, amagabe arkitzea dutelako.

Itz auek entzutean Jokiñe'k, etsita, garbaituta bezela, burua makurtu zuan. Martiñ'ek xamurki, malkoa zeriola, eskua estutu zion, eta etxe artan, une ontan beintzat, Jainkoa'ren geñtza izan zan; gizonak esku-zabaldunak, biguiñak eta deunak diranean, emakumeak gaiztoak baño zoro ta buru-gogor geiago oi geralako, azkenik Jaunaren antzera dasagu: ¡Zure naia egin bedi!

#### IV

Etzan gaiztoa Jokiñe... ugaz-ama bai ordea, ta erderazko esakunak dionez, «goteungeak darama». Egin-alak eginda ere alaba-ordekoak maitatzeko, ezin sartu, ta umeak utsik etzutela berau.

Martin eta Jokiñe, atetik zirudienez, ondo ziran alkarrekin; baña atetik bakarrik, bai-zekialako Martiñ'ek etzituala Jokiñe'k alabak maite, ta zekielako Jokiñe'k, Martiñ'i etzitziola semetxoak alabak bezin maite.

Martiñ'ek maite-igurtzi bat alabai egitea asko, arerio gaiztoak Jokiñe'n biotza ikusi eziñezko garrez bezela sustatzeko.

Baizekian Martiñ'ek; beraugatik saminkizan; baña andreak beretzat gordetzen bazuan, bai gizonak ere. Ume gaxoa zan errukarria; bada Martiñ'ek alegiñ guziak eginda ere, alabak bezin berea zala gogoratuta ere, gorrotorik ez bazion, etzuan beintzat begi onez begiratzen.

Jokiñe'k alabatxoei atze-aldea berotzeko gogoa zuan, baña oraindik etzuan erarik

izan, Martiñ'ek esan ziolako, esana ez egitean bakarrik utziko ziola alabak jotzen: ta alaba gaxoak, ugaz-amak esandakoa ariñ-ariñ egiteraño beratuak eta ondo-aziak ziran: ugaz-amak bereak egiten zizkiotela ori, aginduak ezin bete izan zitzaten; Jokiñe'k berriz esana ez egitea zala esango zuan, ¡bai orixel!

Goteungearekin batean ikasten ari zan Jokiñe, ia alaba-ordekuei agintzeko gauza zail bereziak bururatzen ote zitzaizkion; alabatxoak berekin zuten noski Jainkoaren laguntza agindu auek guziak egiteko, onela ez izatera ain ederki ta zuzen egitea eziña zirudielako.

Agindu zion bein Isabel'i, eraman zezala urko errotara gari-zorroa, ta gabeuki erdi barru zetorrela etxera; beta au, gelditugabe jun-etorria doi-doi egiteko aiña zan. Egun artan oso bidaro txarra zan. Ugaz-amak astoa eroriko zala uste zuan, eta lekaro artan zorroa jasotzeko iñor ez da bestetan baño beta geiagoz egongo zala, beraugatik ederrak emango zizkiola.

Alaxe zan: erori zan astoa, baño gizonik etzegoan tokian Jainkoa izan zan nexka gai-

xoa laguntzen, estu-aldi artatik irtetzeko argia adimeneratuaz. Goitik-bera ziara ebakitako tokian be aldetik astoa jarri zuan Isebel'ek; alde batetik bestera gañera jaso zuan zorroa biribil-biribilka; jarri zuan anditxik astoaren bizkarrean pixkat itzulita, eta ga-beuki erdia baño lenago etxean zan uda-berriko lorak baño alaiago.

Goiz batean eguerdi aurretik atera zan Jokiñe nexka zarrena, txikiena ta mutilla zeuden tokira. Irtetzean etxean bakarrik gelditzen zan Terese'ri esan zion:

—Zaitu ondo lapikoa ta ipiñi maia amabitarko, garai ontan guziok bazkaritaratuko gera-ta. Orra sapaiko giltza; ontzen dauden matsetatik platerkada atera ta gu etortzerako mai gañean ipiñi.

Terese'k lapikoa arduraz zaitu zuan; jarriarik amaika ta erdietan maia ezin ederkia-go, artu bertan platera ta giltza ta sapairatu zan; orra ordea, giltza zaila zegoan eta indar gutxi baizuan, alegin guzia eginda ere ezin ideki izan zuan.

Ongi ikusia zeukan berau, astin-aldia

nexka gaixoari emateko urtzen zegoan ugaz-  
amak.

Ia ba, zer egingo ta zer egingabe utziko Terese etsita zegoen, jakinik amabiak joak zirala, matsa ezin atera izan zuala, ugaz-  
amak etorri eta atze-aldea berotuko ziola. Mats-sortak orbel gañean zeuden zabaldua, atetik oso urruti. Nexkak billatu zuan egur-  
kakoa, ia onela arrapatu ote zitezken ate-  
peko kato-zulotik, baña bere alegiñak alpe-  
rrik izan ziran; urko emakume bat deitu nai izan zuan atea idekitzera, baña urrenekora arrikada baten alde baizan berenetik eta etzan alperrikaltzeko aña betarik. Terese'k, ume guziok oi dezutenez, estu-aldietan ama deitzeko oitura zuan.

— ¡Nere biotzeko ama!—deadar egin zuan nexka gaxoak. Entzun zuan nozki donokitik amak, eta estu-aldi artatik irtetzeko bidea adimeneratu zion; pozaren-pozez jauzkatu zan, ta azkenik badere uste ez duana arkitu duanak bezela, arrapatu zuan bere ondoan *miau* egiñaz «elxe ontan noiz bazkaltzen da» esan nai balu bezela zegoen *Minino* ka-  
tua; lokarria ezarri zion, sartu zuan gero

kato-zulotik, matsen bestaldera gaztazala bota zuan; ondorenean *Minino* gaztazal ondoratu zanean lokarritik teink-egiñik *Mini-no*'k matsetan oñak itsatsi baizituan, Tere-se'k teinka katuarekin batera matsa bereganatu zuan. Ugaz-ama okerrak etzuan izan pozterik nexka gaixoari eman-aldia eginda.

Nexka txikiena oso mixilka zalea zan. Ugaz-amak bein alorta-ontzia bete artu zituan, eta ez baizioten utzi Mirentxo'ri jaten, jan-gura andia sartu zitzaion.

Jokiñe'k alorta-ontzi zirikatzailearen ondoan nexka bakar-bakarrik utzi zuan, agintzen ziola, ez artzeko gero mixilkarik, eta seibat oin arutzago eskutatu zan, ume gaxoa mixilka jaten bere aginduaren kaltez ikusita ziur-ziur astinduko zuelakotz.

Mirentxo jan-gura eutsi eziñik luzaro egon zan; azkenik ordea mixilka artzea erabaki zuan. Ia-ia ortzaz zulatzeratu zanean, orra nun datorren ugaz-ama ziara aserretuta; nexkak ordea arin-arin ezpañetatik sudurre-ratu zuan, eta ikutugabe bertan amari erakatsiaz esan zuan:

—¡Ene, ama! ¡bai usai gozoa duala!—



Jokiñe'k astindu gabe utzi biar izan zuan  
nexkaren gorputza.

Esan dizkitzuten edestiak adirazten dizu-  
te, andre biurri ark zenbateraño ikasten zuan  
goteungeak irakatsita, alaba-ordekoak astin-  
tzeko, eta zenbateraño alaba-ordekoak zegi-  
ten ugaz-amak berea iritxi etzezan.

## V

Nexkak geroago ta aziago ziran. Augatik  
ugaz-amak asteazken-larunbatetan, egun  
auetan oi da azoka-ta, Balmaseda'ra bidali  
oi zituan bakoitza bere alorta, arrautza ota-  
rratxoa saltzera.

Beingo larunbatan ugaz-amak Isebel'i be-  
rrogeta amar Doni-Bane udare eman zizkion,  
Terese'ri ogeita amar, Mirentxo'ri berriz  
amar, esanaz:

Zoazte Balmaseda'ra; saldu irurok sal-  
neurri bat beraz, eta ekarri berdin zillarra.

—Baña, ama —esan zioten nexkak —jori  
eziña da!

—¿Eziña al da? Egizute, bada, egiñal.

Ez gero neri erantzun, neri esana-egin eta bestela baidakizute zuen aitak esandakoa.

Nexkak ikaratuta burua beratu zuten, eta otarratxoak arturik bidaztatzen asi ziran.

Esan dizutetanez etxea uritxoko bestietatik aldentuta zegon. Augatik pixkat urrutiratu ziranean iru nexkak aritz baten ondoan gelditu ziran, ia ugaz amak jarritako zenbakun nastua ateratzen ote zuten begiratzeko.

—¿Nolaz ordea—esan zuan Isebel'ek—gure amak esandakoa zuzendu?

—Nik etzekiñet beiñipein--erantzun zuan Terese'k.

Mirentxo'k ostera esan zuan, eskua zabaldua astinduko balu bezela siñu egiñaz:

—Ta egiten ezpadeñu, ederrak artuko ditugula gure gain.

—Guziok berdin ateratzeko, gutxi dauzkanak garesti, ta asko dauzkanak merke saltzea, au da onena.

—Guziok salneurri bat beraz saltzeko esan din ordea amak.

—Izpidean ago.

—Begira—esan zuan txikienak, gertatu zanetik atera dezakezutenez barrunbe zaba-

lenduna bera zan da—begira, udari guziak saldutakoan iru txanpon pilla egingo ditziñegu, ta bakoitzak berea jaso dezala.

—Oso egoki ari aiz, neska. ¿Ta gure amiak jakitera?

—Gañera—esan zuan ostera Isebel'ek—gezurra esatea baño astin aldia artzea obeden, ¿ez da Teres?

—Bai orixe.

—Amak ez din ordea jakingo...

—Bai jakingo din, Mirentxo. ¿Ez den entzun irakasle andreagandik, nexkak gezurra esaten dutenean guzia edesteko txoritxo baidala?

—¿Txori gauza ori gezurra danik ez dakitala uste dezute? ¡Ja, jai! ¡zoroa ere bai naun-da!

—Alperrik ari aiz neska; amak atzealdea berotuko zigun, baña guk egia.

Pixkatean nexkak ixilik egon ziran ze erabaki begiratzeko.

—Argia zetorkiñet—esan zuan Isebel'ek.  
—Ikastolatik zear igarotzean sartu gaitezen, ia guzia dakien *Saca-cuentas* Jon Jaunak nola zuzendu adirazten digun.

— Bai, bai, zuzen ago—esan zuten Isebel'ek eta Mirentxo'k galdutako itxadokin-tza berenganatuta. Jasorik iru aizpak otarra-txoak, beren bidea jarraitu zuten.

Orain nere umetxoak, *Saca-cuentas* Jon Jauna nor zan jakizute.

Utzi, nere maitea, nere amamaren ipuiña pixkat lagatzen.

Gure amamak egindako irakaslari-an-tzezkia ikustean, oso erraz da Andre on onek nai bezela margotu zuala esatea.

Au esaten badezu, besteratuko dezu bai aburu orí, Galdames'tik eta Sopuerta'ko uri batzar ederretik zear ibilaldia egitean, igarotako eunkiaren azkeneko urtetan ango ikastolan ikasi zutenak, *Tellitu* izena zuan irakaslariaren oroigaia aztarna andiz idatzita bezela dutelako irakaslari au arrotu oi zan, bere ikastolatik betiko aztarna gabe iñor etzala ateratzen-da.

Garai artan esakera au «zigorgabe ezta ezer buruan sartzerik», ezin eztabaidan jarri zitekielako, arrotasun au bidezko zan, aitzikitzakoa ere bai alde batetik.

«Nere ikastolatik betiko aztarna gabe ez

da mutillik ateratzen» esatea, beste au beze-  
la zan, «nere ikastolatik ez da ateratzen ikasi  
gabe mutillik».

Utzi dezagun ordea gure amama edesten,  
nik baño obeto edestuko du-ta.

*Saca-cuentas* Jon Jauna uritxoko ikasto-  
la-irakaslea zan; goitizen gaisto au «Nik zu-  
zenduko zaituztet» mutillei esateko oitura  
zuelako zuan, (1) ta batez ere zenbakiztilari  
on otsa zualako. Bein bakarrik ots au ia-ia  
galdu zuan.

Jauparia ta epalle jaunak bein ikastola-  
ratu ziran, eta galde batzuak mutikoei egiten  
asi ziran auen aurreratzeak azaltzeko.

Mutil biurri batek, argi adirazteko erarik  
izan ezpaizuan, gauz onek barruko poz andi-  
rik ematen etziolako, etziotela galdetu eta  
berak galdetzea erabaki zuan.

—Irakasle jauna— esan zuan—¿gauza bat  
esatez ontartea egingo al didazu?

—Galdetu nai dekan aña— erantzun zuan  
irakasleak—baidakizute, esan dizutedala, ez

---

(1) Erderaz: «Yo os ajustaré las cuentas».

dakizuten guzia galdetzeko, galdetzen duan-  
nak utsik ez du egiten-da.

—Gure aitak nere adiña du irukoiztuta.  
¿Bikoiztuta bakarrik izango duan eguna izan-  
go al da?

—Oiek ez dituk galdeak, oiek ateraldi  
txoroak besterik ez dituk—erantzun zuan  
irakasleak.—Ori gertatzeko, gabetzkaia ire-  
kiko ez ibilli ta aitarekiko ibiltzea biar uke.

—Ta nik uste det—berriro esan zuan  
mutikoak — gabetzkaia biokiko ibilita ere  
izan litekela, gure aitak nere adiña bikoiz-  
tuta bakarrik izatea.

—Ixillik, ixillik ago, baso-mutil ori, ik  
dasakena burugabekeria besterik ez dek eta  
—deadar egin zuan irakasleak mikaztuta,  
aurrean zeuden jaunei zien agurraz bakarrik  
zigorra geldi eutsirik: eta jaun auek aserreki  
samar ikusi zuten mutikoa Bizkai'ko zenba-  
kiztilari onenaren aurrez aurre, eta batez ere  
irakasleari beziñ eziña zeritzaien gauza eus-  
teko alegiñak egiten.

—Esaten detana egia dala adiraziko dizut  
ba—esan zuan mutikoak.—Nik amabi urte  
ditut, gure aitak ogeta amasei: gaurtik ama-

bira, ogeta lau izango ditut eta gure aitak berrogeta zortzi. Beraugatik nere adiña irukoiztuta duan aitak, urte artan bikoiztuta izango du.

Irakaslea orma-zuria baño zuriagotu zan eta jaunak algara egin zuten deadarka esanaz:

--Ume biurria zuzen dago. Baña, Jon Jauna, Bizkai'ko zenbakiztilari onena zera-larik, ¿ikastolako umiek zekitena ere etzenekien?

*Saca-cuentas* Jon jaunak izen ona ereraldi artatik jasotzeko beta luzetxoa biar izan zuan; mutikoak izan ziran errukarriak, asmakizuna jarri ziona batez ere.

Ipiñia zuan Jon jaunak ikastolan ingia, izki zabal-zabaletzaz idatzita zuana «zigorgabe ikasterik ez da», ta egiz bai egiz esakera au bete oi zuala.

«Ikastolatik mutill jakiñak ala ez jakiñak ateratzen ziran», gai ontaz ifz-egitean arrotasunez ia ler egiñik esan oi zuan.

—Nere ikastolatik betiko aztarna gabe iñor ateratzen ez dalako, arro naiz—esan oi

zuan.— Au esatean, jakintsu aterako diran, esan biarrik ez da.

Aztarna auetzaz etzegon ez oker Jon jauna. Bata burua idekitzerañoko ur beltz ontsikadaz, ta bestea artutako makilkadak arpegian egindako josketaz aztarnatuta, guziok beren gorputzan zuten idatzita ikasi zuten agerkaia.

Jon jaunak etzuan iñoiz ezkontzerik nai izan, esaten zuanez, irakaslien lagunak zigorrak ziralako ta ez emakumeak, berak umiekiko biguin-maite izatea biotzan sarturik, ziara ondatzen dituztelako.

Ala zan bai, beti berekin zuan zigorra: ibil-aldia egiterakoan zigorra eskuan; jaupa entzuterakoan baita ere; Balmaseda'ra ta Bilbao'ra jutean, esku-makillaren orde zigorra zuan; ikastolan bezela atean, txadonan eta *erromerian*, *Saca-cuentas* Jon-jaunaren zigorra beti gertu mutiko gizajoen belarriertza berotzeko. Esan ziteken, ikastolan idatzitako esakera takorra gizon egiñik Jon-jauna zala.



## VI

Larunbata zan. Eta dakizutenez, ene umeok, larunbatetan ikastola erdia oi da, eta onela ongi zegokiolako irakasleak ez jakin egin baizuan, mutikoak iñor ere jun ez da erdi au ere utzia zuten.

Ikastola aurreko matspean Flandes'ko gudak irakurtzen ari zan *Saca-cuentas* Jon jauna, imilaun gañean exerita, an bertan josten ari ziran emakumei; auetatik bat areztian Martiñ'i ezkontzeko uar-egin zion andre ezin obe Erramone zan. Jon jauna guda-edesti zalea zan, eta guda auek odol ixurtze andidunak baziran askoz obe. Gudariak eta irakasleak alkarren antzik ez dutela dirudi, baña *Saca-cuentas* jaunaren ustez bata bestien antz andia dute, gudariak erriei ta irakasleak erritarrei irakasten diotelako batak eta besteak malko odolak ixuri-eraziaz.

Martiñ'en alabak irakaslea ikustean donokia idekita balego bezela poztu ziran, larunbatetan beta puxkatez oi zuan bezela txarre aietan urritz-makilla billa ote zegon bildur ziralako.

—Baidijoaz Martiñ'en nexkak azokara—  
esan zuan andre batek urreratzen ari ziran  
umeak ikusita.

—¡Gure Jainkoak lagun daidala!—esan  
zuan Erramone'k—¡oietxek dira erraiak Jo-  
kiñen erraiak! ¡Beti ume gaixo oiek lanean!

—Ez da berea obena, onetan uzten dion  
Martin bildurtirena baizik.

—¡Goian begon Domeke gaxuak burua  
jasota bere erraietako alabatxoen bizkera  
ikusiko baluke!

—¡Ugaz-ama gaiztoak! ¡Jakiña, ez dituz-  
te berak egin-ta!

—¡Andreak iltzerakoan, ume txikiak be-  
rekin eraman bear lituzke!

—Egi andia esaten dezu, emakume. Baña  
Jokiñe'ren zabartzeak geiena izutzen nau.  
Ara; ikusiko ezpanu ezin ziñistu. Langillea  
da, etxeko andrea, gizonarekiko ona, ona  
urkoekiko, baita txiroekiko ere, gaiztoa ala-  
ba-ordekoekiko bakarrik.

—¡Zer nai dezu ba, emakume ori! Ugaz-  
ama izan, eta esakunak jartzen duanez, ize-  
na begiratu.

—Begira gero—esan zuan Erramone'k—

semea baidu, ta gaur nexkai egiten diena ber-bera biar berai egiten dion Jainkoak; zigorgabe zigortzen baidaki, ta esan oi dan bezela, goruntz txistua botatzen duenari.....

Une artantxe nexkak atsoarenganatu ziran.

—Egun on—esan zuten—lurrari otarra-  
txoak jarriak.

—Baita zueri ere, nexkak. Balmaseda'ra  
zoazte ze?

—Ixillik zaude Jainkoaren izenean—esan  
zuan Isebel'ek—gure amaren aginduz egoki  
ere baigera-ta. Gero irakaslea begira esan  
zuan:

—Jon Jauna, arren zenbakun bat zatera-  
ko al diguzu?

—Bai ta bi ere, nai badezu—erantzun  
zuan irakasleak, zenbatzalle ona zalakoz  
arrokerian ikututa.—Ya esan zure zenbakun  
ori.

—Gure amak eman dizkigu, batari be-  
rrogeta amar Doni-Bane udari, besteari ogei-  
ta amar ta irugarrenari amar, ta bere naia da  
irurok salneurri bat beraz saldurik zillarra  
ere berdin etxeratzea.

—Agur Miren guziz garbia, jori buruga-bekeria!—atsoak deadar-egin zuten.

—Nexkak—esan zuan garrazki irakasleak—jolas gura bazerate erosi tximioa, nerekin ez da jolasik-eta,

—Jauna, ez da ordea jolasa.....

—¡Zoazte ortik gaiztoak!

—¡Josu, Miren eta Joseba, orixe da ziniŕsgaitza zerana Jon Jaun ori!—deadar egin zuan Erramone'k.—Nexkak esaten baidute, egia baizik ez da, beren burutik etzuten asmatuko.

—Baña, andrea, nexka oiek esaten dutena gerri-motz da, eziña da...

—Semearen adiña irukoiztuta zuan aitag, egunen batean bikoiztuta izatea ere eziña zala ziñozun.....

Oroimen onetan irakaslea gorritu zan: azkenik, zenbakuna ateratzea erabaki zuan, onela gogarteturik:

—Zuzen zeok atsoa; ura ere zirudienez eziña uan, ta alaz ere ez uan. ¡Alegiña egin bearko det, orduan bezela uritxotarren parre bidea izan ez nadin!

—Ia, ba, ia, atera dezagun zenbakun ori

—esan zuan azkenik lapitza atera ondoren, azala ez zikintzearren zuriz bildutako idazti azalean zenbakiak idaztera gertutuaz.

Irakasleak zenbakiak idazten zituan, ta gero oigetu; goruntz begiratu, azkazkalai ortzaka egin, gogartetzen balego bezela eskua bekokian jarri; berriro idatzi ta berriro oigetu... zenbakuna atera gabe ordea.

Nexkak zenbakun auk begira zeuden estututa; emakumeak berriz ikus-guraz.

—¿Atera da, Jon Jauna... atera da?—  
galdetu zuan aietatik batek.

—Zoazte zakurraren gelara, ta ez neri lana utzi-erazi — erantzun zien irakasleak amorratuta.

Asi zan berriro zenbakiak idazten ta oi-  
getzen, berriro oldozten, idatzi, oigetu; ta  
beraugatik idazki-azala zenbakiz ta zirri-bo-  
rruz betea zan.

—¿Atera al da, Jon Jauna, atera da?—  
galdetu zuan atso batek. Beste batek; au  
entzutean, irri-parre okerra egina jarraitu  
zuan.

—Zaude ixillik, andrea, ia-ia atera da-ta.

—Zoazte goteunge guziekin balean —

esan zuan irakasleak begietatik sua zeriola ta idazti-lapitzak lurrera jaurtiaz.

--¡Ao-zabal galanta zera zu!—esan zuan atso batek. ¡Nik aiña zenbakun dakizu!... ¡zenbakunetan nere mutilla zu baño geiago da-ta! ¿Irudimena besterik al dezu ba?

Atso-talde guzia bat-batean parrez asizan.

—¡Ja! ¡ja! ¡Bizkaiako zenbatzalle onena!  
¡Ja, ja!

— ¡Andreak! ¡andreak! — erdizka esan zuan Jon Jaunak dar-dar, ta amorroz erdi mingetuta.

—¡Bizkaiako zenbatzallerik onena! ¡Ja, ja, ja!—berriro esaten zuten atsoak.

Jon Jauna, zoratuta, bere onetik irtenda, emakume guzien kaltez eta batez ere atso aien aurrez gaizki-esaka, atzetik zinzillik jarri dioten zakurra bezela lasterka ikastola alderaturik ate-ots ikaragarria aterata barruratu zan.

Pixkat geroago nexkak, otarratxoak buru gañean artuta, illun-atsekabe, ugaz-amak ez jotzeko zer egin etzekitela, Balmaseda'ko

bidea jarraitu zuten. Alaz ere itxadokintza pixkat sartu zien Erramone'k esan zienean:

—Aurrera, nexkak ikaratugake, laster zuen ugaz-ama sorgiñarengaturik bi ta lru zenbat diran esango diot-eta.

## VII

Balmaseda'ko emparantzan sartzean, Isebel'ek aizpatxoei esan zien:

—Gure amari esandako guzian ezin esagin dizaiokegun ezkerro, zerbaitetan esagin daiogun, au da, irurok salneurri bat beraz saltzen: onetarako, beti bat egin dezagun, ez gaitezen aldendu askotxo.

Esan ta izan, jarri ziran nexkak alkarren ondo samarrean, salgaiak aurrean zituztela, Seberña Deun txadonari itsatsita, zenbatez salduko zituzten alkarrekin erabakita.

Pixkat geroago Jaun bat berengaturik Isebel'i galdetu zion:

—Nexka ori, txanpon bakoitzaz zenbat udari emango dizkidatzu?

—Saspi.

— Ekaizkitzu ba zazpi txanponei dagozkienak.

— ¿Ta neri ez didazu batere erosiko?— galde-egin zion Terese'k aizparen erosleari.

— ¿Zenbat ematen dituzu?

— Beste orrek bezelaxe, txanpon bakoitzaz zazpi.

— Ekaizkitzu ba lau txanponei dagozkienak, azkenik badere beti oben-eragin oi dezute-ta.

Terese'k eman zizkion ogeta zortzi, ta lau txanpon sakeleratu zituan.

— Aizu, gizon ori — esan zion Mirentxo'k erosle berari — erosi zaizkidatzu txanpon bati dagozkionak, oiek aña izan nai naiz-ta.

— Egia dasazu, txikiena ta zorigabiena, au ez da ongi. ¿Zenbatez dituzu?

— Oiek bezelaxe, txanpon bakoitzaz zazpi.

— Bota ba txanpon bati dagozkionak.

Mirentxo'k jaunaren zapira zazpi bota zituan, ta jaunak txanpona Mirentxo'ren eskura.

Bakarrik gelditu ziranerako jarri ziran nexkak zenbakuna ateratzen eta ikusi zuten



Isebel'ek udari bat eta zazpi txanpon zeuzkala, Terese'k bi udari ta lau txanpon, Mirentxo'k berriz txanpon bat eta lau udari. Ugaz-amak nai bezela ateratzeko jixura ederrak zituan noski zenbakunak!

Igaro zan gabeuki betea, igaro bestea ta gelditutako udariak ezin saldu, urreratuta ain gauza gutxi ikusten zuten guziak gelditu gabe aurrera jarraitzen zutelako beren bidea, jta alorta alerik ere etzegola ori!

—Ama, ¿zer gertatuko zaigu?— esaten zuten nekak, malkoz urtzen zituztela begiak; berealaxe, *tran, larran, tran, tran*, danbolin otsa entzunda ozte guzia pillaka Mena-ateruntz abiatu zan.

Guda-mutil taldea uriratu zalako zan berau.

Pixkat geroago guda-mutil taldea zabaldu zan enparantzan, arkitzen zuten guzia artuaz, egiz gutxi zan auxe baña.

Martiñ'en alabak, gelditu zitzaizkioten udariak eskutatatu zituzten, eta gudari taldea alorta billa nekatu zanean arkitu gabe, berriro agirian jarri zituzten.

Guda-mutil taldea aurreratu zitzaioten eskuan zillarra zutela eroatera.

—Nexkak, ¿zenbatez salduko dituzute udari oiek?

—Bakoitza iru txanponaz.

—¡Ori esatea!

—Ez dira gutxiorako —erantzun zuten nexkak.

Berak ez eroatera atzetik zetozenak nexkak eskatutako salneurriaz ordainduta erosiko zituztela ikusi baizuten, azkar asko eskatu aña eman zuten guda-mutilok.

Isebel'i udari baten ordez iru txanpon.

Terese'ri sei, biren ordez.

Mirentxo'ri bederatzi, iruren ordez.

Nexkak berriro zenbakuna ateratzean, bakoitzak amar txanpon zituela ikusi zuten. *Saca-cuentas* Jon Jaunak atera etzuan zenbakuna, atera zitekiena zan, ta oso ongi atera zitekiena.

¡Ugaz-ama biurri ezin biurriagoa! ¡Ori den utsa egin denana! ¡Umeak astintzeko garaia baiunela uste unen! ¡Ja, ba, amorratu, garrastu, samindu ari ortxe!

### VIII

Ilun-abarra zan. Martiñ'en etxe-aurreko kerixpean zeuden bera, Jokiñe ta Andoni'txo, umeak txabolako leio saredunetatik burua aterata deika zituztelako arkaitzetatik jatsi ziran amabi auntz jeisten.

Martiñ ari zan auntzak jeisten. Jokiñe'k esku bat azkarretatik eusten zien, eta besteaz Andoni'ri.

—¡Nik auntz zuri-beltzaren titia edan nai det!—esaten zuan garai ontan zezenak baño indar geiagodun ume potolo Andoni'k.

—Artuko dituk ba ederrak, geldi ez agolako esne pitxarra jausten bada—esaten zuan Jokiñe'k umearen igi-uneak eusten auntzarenak eusten baño lan geiago zuela.

—Nik zuri-beltzaren titia nai det.

—Ia, ba, zatar ori, jun eta bete ari lertu arte—esaten zion Jokiñe'k azkenik iges-egiten utziaz.

Jun zan berau jaikika, umearen ezpain gorri-biguiñak errapea ustutakoan izango zuan atsegiña bere gain balu bezela *jbe!* mai-

teki egiñaz bideratu zitzaion auntz zuri-beltzarengana.

Bitartean antxumetokian deadarka ezterria etetzen zuten auntzak, esai nai baluteke bezela:

—¡Okerrak alakoak! jeta zenbateraño gutxitzen diguzuten gure zatia!

*Leon*, jabien lana begira zegon, pixkat aldentuta lurrean zabal-zabal jarrita, auntzak urrutiratzen baziran *biguinki* beren lekura jun-erazteko begia esna zuala. *Minino* ere an zegoan, bere barrurako esanaz:

—Neretzat ere zerbait baidek.

Arranoak ostu baizioten, umerik etzuan auntz zuri-beltzak, eramatasun ezin andiagoz uzten zien esnea jeisten.

Edonork dakusen bezela, zer ikusi gutxi dauka ume jale batek auntzaren titia edaten; Jokiñe'ri ordea, oso bestaldera zeritzaion. Au da, umietan arkitzen duten guzia amai ederra deritzaiotelako.

—¿Ez al dezu ikusten, Martiñ—galdezen zion Jokiñe'k parrez zabal-zabal eginda —¿ez dezu ikusten? ¡bai ederki artzen duala Jainkoak eman ditan ume orrek! ¡Andrea-

gandik jaio dan ederrena da! ¡Ene! ¡munka urtuko nuke!

Umeak amaren muñak baño auntz zuri-beltzaren esnea obetzat zuan, baña alaz ere, Jokiñe, umea munka estutuaz, amaren berotasuna adirazteko zorian arkitzen zan, Erramone, nexkai beren bitarteko izango zala itz-eman zien urko andre ura an sortu zanean.

— Arratsalde-on. Aparia gertutzen, ¿ezta?

— ¡Kaixo Erramone! Bai, gaur gabeen apaltzeko pitxar esnea ateratzen ari gera.

— Emaiozu ba edaldi bat—esan zion Martiñ'ek jaiki eta pitxarra atsoagana luzeturik.

— Eskerrik asko. Artuko det ba.

Atsoak esan ta egin.

— ¿Tajuzkoa al da?

— Bai ta garbia gero—esan zuan Erramone'k mantal-muturraz ezpañak garbituaz.

— ¿Ta txikiak nun dira?—galdetu zuan,

— Or Andoni esnez asetzen. Nexkak Balmaseda'ra jun dira esne saltzera, aien laguntzaz etsai gaizto orri oñetakoak erosi daizkiogun, berriak puskatu ditu-ta.

Martiñ'ek etxeratu pitxarra bete esne,

antxumetokiko atea ideki zuan antxumeak amekin batu zitezen, eta utzi zieten esne puxka aparitzat ar zezaten.

Bitartean Jokiñe, Erramone ta Andonitxo kerixpean gelditu ziran, Jokiñe ta Erramone berriketan ixildu eziñik, eta Andoni aruntz-onuntz jaikika esne betekada txegosten.

— Esan dezagun ordea beste gauza bat; Martin aurrean ez dagon ezkeroz, zure alaba ordekotzaz itz-egin dezagun, ezkonduak ase-  
rretzerik etzait atsegin-ta. ¿Uste dezu, Jokiñe, ume oiei egiten ari zerana Jainkoaren legeaz ondo datorrela?

— ¿Txarra danik deusere egiten al det ba?

— ¡Ixillik zaude, Indutar ori! Jainkoak nai bezelako emakumea dan iñor ere, ez da amarik ez dutelako, oretxegatik leiatzen ur-ekartzalleak bezela nexka gaxoak erabiltzera ta ezin egiñak diran gauzak agintzera zuk alaba-ordekoetzaz egin dezun bezela.

— ¿Baña zerbaiten bear dira noski?

— Amarik gabe dira, ta izan diteken ga-berik andiena berau da.

— ¿Ez ditut ba nere alabak bezelaxe ar-  
tzen, ta iltzeraño gorrotatu biar nituzkealarik?

—¡Gaizto ori! ¿la zergatik gorrotatu?

—Berak dirala-ta nere semeak aitarik ez dualako.

--¿Aitarik ez duala?

—Ezetz esan dezakezu, berak dirala-ta Martiñ'ek semetxoa begi-onez ezin ikusi dualako.

—Zure alaba-ordekoen ama zintzoa baziña, etzizaizuke ori gertatuko.

—¿Ez naiz ama zintzoa ala?

—¿Uste dezu donokian dagona bizi izan balitz, negar malko samiñak erizkiotela bide oietan zear jungo zirala, ta gaur arratsaldean dar-daraz etxeratu, ukaldika artuko dituzula dakitelako?

—Bai, ta nere esana ez betetzera ederrak artuko dituzte.

—Ez da zurea obena, zabartutako aita orrena baizik. ¡Oi ene! Domeke gaixoa jai-kiko balitz...

Martin zetorrela ikusirik, geldi-unetxoa egin zuan Erramone'k eta beste berriketara jo zuten; Martiñ ordea, egikizunak baizifuan, berriro etxeratu zan.

Andik pixkatera Andonitxo amaganatu zan, eta soñekotik elduta arrantzaz asi zan:

—Ama ¿noiz degu aparta? ¡jen! ¡jen! nik apaltzea nai det.

—Baña, umetxo—esan zion Jokiñe'k—  
¿ez aiz ba oraintxe esnez ase?

—Bai, baña titia artzea, ez da apaltzea.

Umetxoaren esan eder onek Jokiñe'ri parre-algara atera zion eta munka umea estaliaz deadar egin zuan:

—¡Ene! ¡zoriontsua ire aoa, ludi guziak baño eder geyago dekalako! ¿Ez dezu ikusten ordea, Erramone, ez dezu ikusten? ¡auxe da ume zoragarria detana!

--Jainkoak onetsi beza- esan zuan atsoak itzak banaka-banaka indartuaz—¡Jainkoak onetsi beza, ta eutsi bere ama!; zu ilko baziña ¿zer gertatuko litzayoke?

—Ama gabe geldituko balitz ilko litzake nere errayetako semea— esan zuan Jokiñe'k, maitiaren maitez malkoak zeriozkiola.

—Ez litzake ilko— esan zuan osteratsoak, beti geyago esan nai ta—ez litzake ilko; zure alaba ordekoak ere ez dira il;



baña obe litzaioke iltzea, egin ez duana amatzat izatea baño.

Jokiñe'n masail gorriak berealaxe zuri-zuritu ziran: semea ezin geyago maite zuan ama ari, argi izugarri atsekabez betia adimeneratu zitzayon; au zan, bere semeak ere ugaz-ama izatea, ta beraugatik alaba-ordekoei eraman-erazi ziena eramatea izan-ala zala.

Urko alsoak, ustez osatua, ta asko ikusitakoa baizan, Jokiñe'n arpegitik igerri zuan zer zuan barruan, eta azken-indar-aldia egin zuan, amarik etzutelako ainbeste negar egin zuten nexka gaxoei ama emateko.

—¡Jokiñe!—esan zion abots indartuaz— Jainkoak zigorgabe zigortzen bai daki, ta batzuetan zuzenak, gaiztoak dirala bide, eraman oi dute zigorkada. Amak iltzen dira, ta giz-alargunak amarik umiei ezin eman dioten ezkeroz, ugaz-ama emateko ezkontzen dira.

—¡Ugaz-ama!... ¡Nere biotzeko semea!—esan zuan ixil-ixilka Jokiñe'k, batenbat ostera baletor bezela biotzaren ondora semea estutuaz.

Une artantxe, etxe ondoan amaya zuen gurdi bidetik, Balmaseda'tik zetozen iru nexkak agertu ziran.

Irurak alai-alai zetozen.

Jokiñe bideratu zitzayoten maiteki deitubaz, eta bizi zanetik lenbiziko aldiz or nunbait, besoaz estutu ta munka gozatzeko gura izan zuan.

Umeak, amaganatu baño lenago, ugazamaren aginduak nola bete zituzten edestera aurreratu ziran.

—¡Jokiñe!—deadarka esan zuan atsoak —¿eztezu Jainkoaren eskua ikusten, alatza dirudien gauza ontan?

—¡Bai, orixe, bai!—erantzun zuan Jokiñe'k—Jainkoak azkenik bada ere nere begiak ideki ditu, berandugi izatea bai liteke baña.

—Onerako ezta iñoiz beranduegi—esan zuan Erramone'k igarle antzera atera zuan abotsaz.

Jokiñe'k, biotza garbitzera eldu zitzayon zentzaldia ezin eutsiaz, ideki zizkien nexkai besoak, eta alaba izena ere emanaz, (etzien bera aspalditik ematen), estutu zituan beso

bien erdian ezin samurkiago, eta negar malkoz josirik, munka bete zituan.

Une artan, Donokitik alaben ardura zuen Domeke gaxoak ere negar-egin zuen noski.

—¡Martin! ¡Martin! — deadar-egin zuan Erramone'k pozaren pozez negarra zeriola.

—¿Zer dezu, Erramone?— galdetu zuan nekazari onak ateraño irtenda.

—Zure alabak ama dutela, — erantzun zion atsoak.

—¡Jainkoak eta donokian dagon andre ark onetsi bezate! — pozaren pozez deadarka esan zuan Martin'ek.

Eta kerixapean jolasean zebillen umea-gana lasterka junda, arturik besoetan, alabai andreak egin zizkien maite-igortzi ber-berak egin zizkion.

Andrea, ondorenean atsoaganatu zan, eta gau-itzal-illunpeak geyagotuta kerixapean gertatzen ari zana ikustea eragozten baizien, estututa atsoari galdetu zion, eta onek erantzun zion:

—¡Zure semeak aita baidu!




# UGAZ-AMA

Ipuian aitatu diran gizon eta emakumien izenen  
adierazpena.

<i>Andoni</i> .....	ANTONIO
<i>Andonitxo</i> .....	ANTOÑITO
<i>Domeke</i> .....	DOMINICA
<i>Doni-Bane</i> .....	SAN JUAN
<i>Erramona, Erramone</i> ..	RAMONA
<i>Isebel</i> .....	ISABEL
<i>Jokiñe</i> .....	JOAQUINA
<i>Jon</i> .....	JUAN
<i>Jontxo</i> .....	JUANITO
<i>Joseba</i> .....	JOSÉ
<i>Josu</i> .....	JESÚS
<i>Miren</i> .....	MARÍA
<i>Mirentxu</i> .....	MARIQUITA
<i>Miren Neskutsa</i> .....	VIRGEN MARÍA
<i>Neskutsa</i> .....	VIRGEN
<i>Seberin</i> .....	SEVERINO
<i>Seberin Deun</i> .....	SAN SEVERINO
<i>Terese</i> .....	TERESA





Antero Apaolaza

## PACHIKO CHERREN

*\* El Judas de la casa izenaz \**

*\* Trueba'h erderaz idatzi zuan \**  
*ipuiaren euskeralbena da lpu! au.*





## PACHIKO CHERREN

### I

Orañ izango dira Jaungoikoak daki zenbait urte, Antzuela eta Deskarga barrena bitartean, bidez ezkertera, zan auzera bat, ikusi leikean ederrena.

Pago, aritz, gaztaiña, sagar eta keiña artean, or da emen banakatuak agiri ziraden pachara ederreko eta Aitzgorri gaiñeko elurra baiño zuriago ziraden echeak.

An barrenean erreka chiki bat; bere urak ziran udaberriko intzan tantoa baiño garbiagoak eta izotza bera baiño otzagoak, et anchinchika zijoan bere anaia Arrandari menditikan datorren errekachoari laztan ematera, agur... gur... gur... gur... esanaz erreka baztarretako sagatz, altz eta arantzai.



Errekacho onen eskubiko aldetik eta in-  
chaur aundi batzuen itzalean, beste lau edo  
bost eche inguruan zituala, zegoan eleiza  
chiki bat; bertan erregutzen zioten Aita San  
Blas'i, len aitortu dedan auzokoak.

— Auzera onetakoa zan *Eche-alai* zeritzon  
echea; an gertatu zan ni esatera noan kon-  
daira.

Izena zuan bezela, *Eche-alai* zan era gus-  
titakoa, eta zituen soro batzuek, bai eche  
buruan eta bai eche azpian, lur beltz eta  
arta-putza ondo eldu baiño samurragoak eta  
aundiki baten baratza bezin ongi apainduak.

Itz batean, ezin eskatu zezakean *Eche-  
alai*'k zedukan baiño egoera oberikan. Atari  
aurreko keiſa, inchaur eta lizarren artetik,  
nekez bide egiñik, mun egiten zion eguzkiak  
egun-sentian, eta etzion alderatzen Azalde-  
gietan barrena ezkutatu artean.

Bagilla zegoan bere azkenetan eta zan  
illunabar bat.

*Eche-alai*'ko jentea ari zan keiſa batzuek  
biltzen eche aurreko keiſa arboletan.

—Kontu erori Iñazio, geiago balio dek ik  
mundu onetako keiſa guztiak baiño-ta—dei-

tzen zion amona batek birigarro bat bezela adarrik-adar keiſa gañean zebillen amasei urteko mutill gazte bati.

—Ez bildurrik izan ama; badakit nun eta nola nabillen—erantzun zion gazteak.

—Aukerakua itzake, seme, erririk-erri cherpolari bizimodua ateratzeko.

Au esanaz ustu zituan altzuan zituan keiſak keisondoan zegoan ocharren batera.

—Bai... jachi adi onezkero; ocharren onek gañezka egin dik eta aitak eta Pachiko'k ere bete ditek eurena.

Iñazio brinko batean jechi zan keiſatik.

Beste mutill gazte bat, lau edo bost urte Iñazio baño zarragua, jeisten zan orduan aldameneko beste keiſa-arbola batetik; onen ondøan zegoan aitona buru zuri bat.

Bien artean artu zuten alde banatatikan keiſaz beterik zeukaten ocharrena, eta abiatu ziran ama eta Iñazio zeuden aldera.

Elkartu ziranean eseri ziran atsedeten lurrean.

Aitonak atera zuan praketako boltzikotik bere tosa, atera zuan andik pipa kerten-

motz bat, eta atzazkalean astinduaz, ortzik ez zuan-ta, jarri zuan zintzilik ezpañean.

Beste ainbeste egiñ zuan seme zarrenak.

—Pachiko, eman egiak pipada bat, emen etziok eta—esan zion aitonak biatzakiñ atzarmartuaz, baña alferrik, tošaren ondoa.

—Aita, neroni ere aitu zait—erantzun zion semeak bere pipa bete zuanean.

—Gezurtia—esan zion Iñazio'k izioturik. ¿Atzo bertan ez nikan ekarri neronek laurden bat Bergara'tik?

—¡I beti izango aiz berritsu aundi bat!

—¡Eta i zitala paregabekoa!

—Ondo egiten diat. Erre nai duenak erosi dezala belarra.

—¿Ezaiz lotsatzen esatiakin bakarrik?

—Utziok, utziok Iñazio—esan zuan aitik arnasa luze bat egiñaz eta pipa sartuaz bere tošan—utziok. Bazekiagu zer ichon dezakegun guztiak ire anaiagandik.

—Juane—esan zuan amak—oriše da eche onetako Judas. Orrechek kendu bear digu danori bizia; orrechek...

—Isildu zaitte Praiska—erantzun zion

Juane'k; pipa-artzalle zalea banaiz ere, eche-ko bakian zaliago naiz.

—Aita; bakerik ez badezu ere, pipa bete belar izango dezu —dio Iñazio'k—ni bizi naizen artean—eta esanaz batera brinko bian sartu zan echean.

Jesugarren batean biurtu zan atzera arturik eskuan orri puska bat sokan gisa biurtua.

—Tori, aita—esan zion—naiz neronek ez erre, ezagutzen det zenbat aienatzen zeran orririk ez dezunean pipa betetzeko, eta argatik, atzo nere anaiaren aginduz juan nitzanean belarra ekartzera, erosi nuen laurdencho bat zuri ezaldiak betetzeko.

—Bai—esan zuan Pachiko'k—nere laurdenetik artuko uan ori.

—Begiraik Pachi; ezeidak odolik berotu. ¿Uste duk danak generala ire antzekuak?

—Bai—esan zuan Praiska'k Pachi'ri begiratuaz—aiñ zitalak dituk ire amesak nola diran ire egiñak.

—Ba... ba... utzi, utzi zaiozue gauza orri—esan zuan Juane gizajoak masallak esturirik tira egiñaz pipari.

Zori oneko pakea iritsi zan *Eche-ala*'ra. Illun arratsa zan, eta egunaz bero izugarria egiñ bazuan ere, chit egon giro ona zegoan.

—Aurki apaldu eta lotara juan bear degu —esan zuan Juane'k.—Bigar goizian goiz, eguzkiak berotzen asi baño lenago, juan bearko dezute Bergara'ra keisekin, eta ala oraiñ goazen echera; Mikaela'k onezkero gertatuko zuan afaria.

—Begira Juane... ¿Ez litzake obe bertan afaltzea?—esan zion emazteak.

—Ongi pensatua da...—erantzun zuten danak—eche barruan labean 'baño beroago egongo da oraiñ.

—¡Mikaela...!—deadar egin zuan Prais-ka'k etxe aldera begiratuaz.

—¿Zer nai du, ama?—erantzun zion nes-kacha batek sukaldeko leiotikan.

—Afaría gertu\*, danean ekarrizan one-raše.

—Or naiz bereala, ama...

Eta esan bezela, or non datorren gure Mikaela, galbai bat zapi zuri batekin estalia buruan arturik, eta gaztaña koloreko pichar aundi bat sagardoz beteta eskuan duela.

Mikaela zan emezortzitik ogei urterako neskacha bat, San Juan eguneko goiz bat beziñ argia eta larrosa bat bezin ederra.

Itzuli zuan auspez galbaia; apaindu zuan zapi zuriarekin, eta jarri zuan gañean ontzi zabal bat bete sardiña, liña-lorea bañon urdiñagoak, eta ingurutua urre zarra baño oria-goko arto atalakin.

... *Aitaren, Semearen, eta Spiritu Santuaren...* Errezatu zutenean *paternoster*'a, bedeinkatu zuan mai ura Juane'k... eta betor sardiña, kolpe artuari eta laztan picharrari, asi ziran jaten pake onean.

—Keisak baduaz arintzen—esan zuan Juane'k—eta sentitzen det don Jose'gatican.

—Don Jose...—dio Pachi'k—geiago sentituko dute choriak.

—Aurten ez da onezkero geiago etorriko, meza esan baño len, goizian goiz, zo-zoak eta eskillasuak iltzera gure sukaldeko leiotik. ¡Deabruan piztiak!; ez dira izutzen chorimalua jarriagatican.

—Eta don Jose aitatu degun ezker... gaur gnola ez ote da etorri?—esan zuan Praiska'k.

—Atzo juan bazan Donostia'ra... bere illoba Indiano'ari bidera ateratzera — esan zion Juane'k.

—¿Orla badator illoba? ¡Ai zenbat pozten naizen! ¿Ekarri ote digu zure anaian berrik, Juane...?

—Jaungoikoa'k nai izan dezala.

—Arritzeko gauza da gero, ainbeste denboran ez jakitea ez illdan, ez bizi dan; bildur naiz ilko zala, bestela onezkero letra puntan bat egingo zuan.

—Neronek ere alaše uste det, Juane.

—Bost ajola digu ori ala izanda ere— esan zuan Patxiko'k.

—¡Ave Maria purisima!—dio Praiska'k.

—¡Ai zer biotz gogorraren jabe aizen, seme!

—¿Zer ardura digu guri ura deabruak eraman dezala, sekula ardit bat eman ezpadigu?

—Nik nai dedana eta danok deseo bear deguna, da, bizi dedilla— esan zuan Juane'k —naiz Ipiñ-arrita bete urren jabe izan eta ez deigula errechin batentzat ere eman.

—Baña... ¿Amerika'tik dator don Jose'n illoba?—galdetu zuen Mikaela'k.

—Etzekiñat nik ori—erantzun zion amak  
—baña nola ta nai ere urrutitik beiñepeñean,  
eta esaten dutenez, oso aberats.

—¡Iso...!—esan zuan Iñazio'k, lepoa lu-  
zatuta. —¿Ez ote dira erak an Deskarga'n  
barrena datozenak?

## II

Arrazoa zuan Iñazio'k; gaztañadia zear  
zijoan galtzadan, azaldu ziran apaiz jauna  
eta bere illoba Anjel, mando banan gañean,  
ondoren zituztela beste iru mando India-  
noa'ren maletaz zamatuak.

Don Jose zan San Blas'eko apaiz jauna.  
Zituan irurogeirenbat urte, osasun kolorea  
eta, geiegi ez arren, zer arin mardua; bere  
itzetan eta bere arpegian ezagun zan biotza-  
ren edertasuna; beti ichia gorrotoarentzat,  
poltsa zabalik zeukan bezela auzoen ezbea-  
rretarako; itz batean: zan, esan oidan beze-  
la, ogi puska baño ohea, eta auzera guztiak  
maitatzen zuan aita bezela.

Indianoa zan ogeita bost urteko galai  
gazte bat.



*Eche-alai*'ko guraso eta umeak jaiki ziran aiei ongi-etorri ona ematera: bakarrik Pachi gelditu zan ocharren ondoan, sardiñak egon ziran ontzia arta puska batekin inguru guztian igozten; eta esanaz bere artean: «¿zer zeukat nik zer ikusi Indianoa'rekin eta ez bere osabarekin...? Oiek emango dutenagatikan...»

Ez alzituan don Jose'k *Eche-alai*'tarrak ikusi, gelditu zuan mandoa; beste ainbeste egin zuan Indianoa'k.

—¡Kaiso Juane! ¡Ola Franziska! —esan zuten osaba-illobak.

—Arratsaldeon duela, don Jose lagunakin —erantzun zuten danak.

—¿Posible ote da—esan zuan Praiska'k —zaldun au dala...?

—Anjel—erantzun zion irribarre egiñaz Indianoa'k—ni naiz mutill gaizto ura, oraiñ amar urte asarratu eragiten nizuna beti arrika eche aurreko inchaurrari, nere osaban ondorean *Eche-alai*'ra etortzen nintzanean.

—¡Bedeinkatua izan dedilla gure Jaungoikoa! Nork esan lezakean berori zan beziñ...

—Zer berori eta zer perrechiku ustel... Oriše bear genduke; zapaburua aiña ez nintzanean ezagutu ninduenak *berori* eta *jauna* esatea. ¡Inpernuko Chomin! Mikaela'k ere ez du ezer galdu. ¡Au bai dagoala neskacha.!

Mikaela'k jachi zituan begiak lepoko pañoloan punta atzamartuaz, eta aren larrosa koloreko masalla ederrak biurtu ziran krabeliña kolorekoak.

—¡Zenbat azi dan lñazio! ¿Eta Pachi nundikan dabill?

—Keiša ondoan gelditu da.

—Arek, ezdago zer esanik, lengo lepotikan eukiko du oraiñ ere burua. ¡Amaika bi-dar ernegatu eragin ziran chikitan!

—Eta beori, ¿nola ibilli da mundu oietan?

—¡Zorioneko beori! Ez nuke nai berriz aditzerik, Juane.

—Baiña ezin utzi esan gabe.

—¡Ba! bearko utzi nerekin adiskide nai badezu... Ni ibilli naiz ondo eta gaizki, guttira; baña Jaungoikoa'ri eskerrak osasuna badet eta asko asko ez arren, ondasun pizka baten jabe ere egin naiz; nere uztez naikoa,

ogi puska bat janaz baztar onetan pozik bizi izateko. Asko nai diot eskiña oni, eta geiago nere osabari, berari zor diot naizen guztia-ta. Nere artean esan nuan... nuan nere ollo lurrera, onezkero osaba zartua egongo da, eta nai det bere ondoan bizi bera zaitutzeko eta biurtu, iñola albadet, neri egin dizkidan mesedeak... eta, esan da egin, emen nun irichi naizen zerutik eroritako choko onetara; baiña... oraiñ gogoratzen naizenaz, zuek... inguru guztiko aberatsenak izan bear dezute...

—Jaungoikoa'ri eskerrak etzaigu falta artoa eta esnea.

—¿Zer esaten dezu Juane? ¿Eta anaian ondasunak?

—¿Zer ondasun, don Anjel?

—¡Berriz ere don eta kalabaza errea! Jaunak zeruan euki dezala, zure anaianak.

—¡Ai gure Jaungoikoa!... ¡Orla iltzan!  
—esan zuten Juane'k eta Praiska'k eskuak gurutzetuaz.

—Seguru eziñ esan nezake,—esan zuan indianoak zerbait damaturik,—baiña... oso gaizki zegoan.

—¡Ai! Ez beza ukatu... illa izango da.

—Bai ba, zorigaiztoan... urte bi izango dira ura il zala—esan zuan indianoak. Baña ¿nola izan lezake zuek ez jakitea? ¿Eta arek zuentzat utzi zituan izugarritzko ondasunak?

—Gorde ditezela orain dauzkatena—erantzun zuten Juane'k eta Praiska'k.

—¡Juane!... ¡Praiska!...—esan zien apaiak, eskuakin sorbaldan juaz... —Negarra ez da aĩn mikatza ondasunekin danean. Bigar itz egingo degu gauz orren gainean, gaur etzaudete orretarako-ta.

—Gaba irichi zan izarrak agertuaz... Indianoa eta bere osaba alde batera eta *Echealari*'koak bestera, alkarri gabon esanaz abiatu ziran bakoitza bere echera.

—¡Ill da!... ¡ill da!—esan zioten Patxi'ri aitak eta amak echera eldu ziranean.

—Eta... ¿diru asko utzi du? Eta... ¿guretzat utzi ditu?—galdetu zuan Pachi'k, begiak *bris bris* egiten ziotela.

—¡Pachiko!—esan zion aitak asarraturik—oso biotz charra dezu eta lotsatzen nau zuri semearen izena eman bearrak.

Andik laster sartu ziran bakoitza bere

gelan. Keiřak aztu ziran... an jan zituzten goizean olloak eta zerriak. Aztu zan goizean Bergara'ra joatea. *Eche-alai*'ko danak, osabaren eriotza zeukaten gogoan: Patxi'k, zerbait izango zuan esperantzarekin; gaiñerakoak negar egiteko.

Biaramon egun sentian zijoan don Jose *Eche-alai* aldera. Beste batzuetan eraman oi zuan bezela, ez zeraman orduan bere eskopeta, eta laguntzen zion bere illoba Anjel'ek.

Eldu ziradenean *Eche-alai*'ra, arkitu zituan Juane eta gaiñerakoak, aurreko arratsian utzi zituen baiño zerbait sosegu geiagorekin.

—Ia ba, Juane — asi zan esaten indianoa —emen argi itz egin bear degu. Nola difuntuak utzi ziñuen bere ondasunen jabe, konbeni da eta bear dituzu zeureganatu, besterik ez bada ere limosna egiteko.

—Arrazoia du, don Anjel; ala gustatzen zaizkit gizonak.

—Orañ esango dizuet zer gertatzen dan gauza onetan. Zure anaia zan bosteun milla errealen jabe.

— ¡Bosteun milla erreal! — esan zuan Pachi'k. ¡Eta sekula chanpon bat bakarra ez ziguen bialdu!

— Zure anaia zan, oso diru maitea... Baña... Utzi ditzagun pakean ildakoak, eta egin daiogun gerra zuen ondasunak jaten bizirik daudenai. Zure anaiaren azkeneko enkargua artu zutenak zabaldu dute Amerika'n, egin dutela difuntuaren borondatea, Jaungoikoa'k agintzen duan bezela; eta an, iñork ez du sinisten gezurretan dabilzanik. Onela ba, bear diozute eskribitu ainbat lasterren eskatuaz arrazoi dan bezela zuen gauzak, eta euren buruak gorrak egiten badituzte, biallatuko degu erremedioa gorraizea sendatzeko.

— Ongi da, don Anjel, — esan zuan Juane'k — guk egingo degu beorrek esaten duan guztia.

Nola *Eche alai*'n etzegoan zerekin karta egin, apaizak bialdu zuan Pachi esanaz:

— Esan egiok gure Josepa'ri emateko papera, tinta, luma eta oblia batzuek.

Pachi guztiz nagia zan, baiña ezkurran zurru murrua zegoan-eta, berantzat ere zer-

bait izango zan amesean, lau brinkoan eldu zan don Jose'n echera.

Andra Josepa zan emakume bat, ez zarra eta ez gaztea, guztiz ona eta chit esku-zabala.

Pachi'k billatu zuan andra Josepa sekula baiño umore obean, eta kontuak esateko gogo andiak.

—Andra Josepa—esan zion Pachi'k—eman bear dizkit ainbat lasterren eskatutako oiek.

—Jesus gizon... ez ari aiñ burduntzia izan; ichon zak puska bat, ez zeramak urjolak garirikan.

—Baña ¿ez daki nekez juaten banaiz asarre egingo didatena apaizak eta don Anjel'ek?

—¡Zer egin biar ditek asarre, aingeruak baiño obeago diran kristaubak! Ogei urte badituk don Jose'kin nagoala, eta oraindikan etzioat ikusi arpegi illunikan. ¿Eta Anjel? ¡Apota! ¡Lurrak ez dik bere gaiñean ume obeagorik! ¿Ikusi dek zer mutill ederra etorri dan?

—Eta esan beza, andra Josepa, ¿abera-tsa etorri alda?

— ¡Zugarri! Baeki ark ekarri dituanak... ator beran gelara, eta an ikusiko duk zer dan gauza ona.

Pachi eta andra Josepa sartu ziran kucharatillaz eta narruzko maletaz beterik zegoan gela baten.

Andra Josepa'k edegi zituan aietako iru edo lau, eta erakutsi ziozkan Pachi'ri aien barruan zeuden urrezko eta zillarrezko gauza ederrak.

Begiak iges egin nai zioten Pachi'ri aiek ikusi zituanean; andra Josepa ezin kabitu zan bere larruan Pachi ala ikusita.

—Au—esan zion Pachi'ri, biatzakin senalatuaz iltze oriz josita zegoan kucharatilla bat—au zioz ichita zazpi giltzekin; artuzak eskuetan—esan zion begi bat kiñatuaz.

Pachi'k egotzi zion eskua eta ozta-ozta jaso zuan lurretik ontzabeten bat. Atzera uzterakoan aitu zan *chin...* *chin* ots bat, Pachiko'ri zarrada eragin ziona. Andra Josepa'k, algara egiñaz, esan zion:

—¿Zer uste uan gizajorrek, arta-lastoz betea zegoala?

Pachi'k ez zuan aditzen andra Josepa'k



esaten zionik. Etzegoan bere artean; izerdi larria ateratzen zitzaion, eta milla gogorazio char jaiotzen ziran aren buruan.

—¿Zer deizkiok orri, Pachi?

—Duroz betea egongo da.

—¡A kaiku aundia! Duroz ez, baizik lau kantoiko ontzako zarrez zegok ori betea.

Au aditu zuanean Pachi'k galdu zuan bere burua eta choko danetara begiratuaz eman zuan pauso bat, ukabillak estuturik, andra Josepa zeguan aldera...

—¡Pachi! ¡Pachi!—ots egin zuten sasoi artan eskalleretatik.

Pachi'k, birau izugarri bat boteaz, jo zuan ostikoaz lurra eta andra Josepa'ren ondoren joan zan eskallera burura. An zegoan Inazio.

—Egun on daukala, andra Josepa—esan zion.—Abill azkar, mutill,—esan zion Pachi'ri.—Ordubete onetan an zeudek ire zai apaiza eta don Anjel. ¿Ez aldakik oraindikan meza esateko dagoala don Jose?

—Ichon dezala...oraindik ezta berandu—esan zuan Josepa'k—Jesus batean jarriko ditutet gosari gozo bat.

—Eskerrak milla, andra Josepa,—esan zuan Iñazio'k.

—¡Zer esker eta zer adar!... Nik esaten det gaur etzeratela juango *Eche-alai*'ra lukainka mutur bana jan eta chakolin zurrut bana ean gabe. Alkarrekin busti bear degu gure indianoaren etorrera.

—Beste egun baten etorriko gera, andra Josepa,—esan zuan Iñazio'k —lgandean meza ondoan artuko degu berorren gonbita.

—Ondo da ba, nere semeak... ez dizuet lantegi charrik eragin nai, eta badakizute nere borondatea zuentzat; baiña nai nuke Iñazio'k ere ikusi ditzan Patxi'k ikusi dituan gauza ederrak.

—Ez andrea, ez, oraiñ ez degu astirik orretarako... beste batean izango da,—esan zuan Iñazio'k; eta au esanaz, artu zituan maian gañean gertu zeudenak eta anai biak artu zuten echera-bidea.

### III

Orain ikusiko dezute nola izan leikean egarriak egon eta urik ez gogoratzea.

Udaberriko arratzalde eder bat zan. Don Jose eta bere illoba indianoa bakoitzak bere eskopeta anka artean arturik, zeuden muga baten gainean ešerita, aurreko egian *ji* ta *jan* zaunkaz zebiltzan erbi-zakur eder biri begira.

—Osaba—dio Anjel'ek—uste det Pinto'k eta Leon'ek lorratza galdu dutela. ¿Obe ez genduke echera joatea? Illuntzera doa eta berori ezta gauzako gabaz bide chior abetan ibillteko.

—Arrazoia dek Anjel; arratzaldean asko ibilli ezpagera ere, oso nekatua arkitzen nauk; abarka zar batek aiña ez diat balio, Anjel, eta onezkero, obe izango diat nik neguan suan ondoan eta udan itzalean pake-pakean egotea.

Osaba-illobak jarri zituzten eskopetak bizkarrean, eta *fiit fiit* zakurrei chistu egiñaz, jechi ziran mendiak bera.

Anjel zijoan aurrena, eta eche-bidea utzirik artu zuan *Eche-alai*'ra zijoan bide chiorra.

—¿Nora goaz, *Eche-alai*'ra?—esan zion Don Jose'k.

—Bai, osaba; anche atsedengo degu pis-  
ka bat, eta nik edango det trago bat ur, ega-  
rriak itotzen nauka eta...

Osabak irribarre egiñaz esan zion:

—Ta... ta... ta... Anjel, Ainbeste bastar  
ikusia izanik, eztaukak abilidadarik ire de-  
sioa eskutatzeke.

—¿Zergatik esan du ori, osaba?—esan  
zuan Anjel'ek, anpolaiaren kolorea artuaz.

—Ara ba... ez diat nik uste *Eche-alai*'n  
atsegin lezakeala, pago zar onen itzalean  
baiño obeki; eta ur gozoagorik edan ere, or  
altz tartean dagoan iturrian baiño.

—Baiña emen...

—Esan zak emen ez dagoala Mikae-  
la'rik, picharra eskura emateko.

—¡Osaba!

—Esan zak egia Anjel... aitortu zak Mi-  
kaela ikusteko pozak eramaten auela *Eche-  
alai*'ra. ¿Zer gaitz zioz gauza orretan, izan-  
nik bera neskacha on bat, eta ire asmoak  
zuzenak?

—Egia da osaba, oaingoan igarri dio.

—Guk burua zurituta, degunak, urrutiti-  
kan usaia artzen diagu.

— Bai ba osaba, maite det Juane'n alaba, eta uste dut berak ere ez daukala iguirik neretzat, eta barkatu beit osaba oraiñ artean isillik idukitzea gauza au.

— Ez duk isillik iduki ez, Anjel; ezin esku-tatu dik ire arpegiak biotzak sentitzen duna. Baiña ¿zer egiten duk ire intentzioak erakutsi gabe Juane'ri, Praiska'ri eta aurrena Mikaela'ri berari.

— Ain dirade zuzenak eta leialak eze, beldur naiz, osaba, arrazoirikan aditu naiko ez dutela, beste asko eta askok pozik adituko litukian arrazoiarengatikan beragatik.... ni naiz aberatsa, eta erak ez.

— Orrek ez dik arrazoiaren izenik me-rezi. ¿Noiztik duk pekatu aberatsa izatea, aberastasuna ekarri bada, ik ekarri dean bezela, ere izardiarekin irabazia?

— Ez, osaba... baiña... denbora guchi barru... erak izan litezke ni bezin edo ni baiño aberatsagoak, eta orduan...

— Orduan esango ditek (erak ez, ez du-te biotz eta pensamentu charrik-eta) baiña bai beste mingaiñ luzen batzuek, diruagati-kan ezkontzen aizela.

—Arrazoaia du, osaba; ez zitzaidan orrelako gauzarikan bururatzen.

Onetan eldu ziran osaba-illobak *Echealari*’ra. Juane, bere emaztea eta semeak ari ziran, echeburuko soroan, artajorran.

—¿Zer berri da, Juane?—esan zuan Don Jose’k.

—Ez dago gauza berririkan, jauna. Goizean izan da Inazio Bergara’n, eta Amerika’ko korreoa etorriagatikan, ez zan guretzat kartarik... gure esperantzak eta gaberdiko zakurran amesak berdin...

—¿Zer ames eta zer!...—esan zuan Anjel’ek...—beti ur epelean ibilli gabe, oingoan gogor asi bear degu.

—¿Eta zer naidu ba egitea?... Doazala Jaungoikoa’rekin: gorde ditzela bosteun milla errialak eta gastatu ditzatela osasunarekin... gu, biziko algera gere pobrezan.

—Arrazoi du aitak — esa zuten Mikaela’k eta Inazio’k.

—Oriše esaten dut neronek ere —geitu zuan Praiska’k.

—¿Mokordo zar bat! — esan zuan Pa-

chi'k, eskuan zuan achurrakin bost edo sei arta-landara zatituaz.

—¡Tripa erre!—esan zion amak— I beze-la izango gaituk, dirua beste Jaungoikorikan ezagututzen ez dekan ori. ¡Orrechek galdu bear au il! ¡Orrechegatikan ustelduko aiz i kartzelan batean!...

—Bai Praiska, bai, asko da—esan zuan apaizak— oingoan parte arrazoi dauka. Neri begitutzen zait, alferra izango dala berriro eskribitzea ezagun da testamentarioak fede gaiztoan dabilzana-ta; eta nik uste det one-na izango litzakeala zeutako bat sartu ontzian eta «gari berriak arte» esanaz, bertara joa-tea. Juane eztago orretarako edadean, Pa-chi'k eztu eskolarikan...

—Berak ditu kulpak jauna—esan zuan Praiska'k—amaika alegin egin zaio bere denboran, baiño gelditu zan goiko abe zar ori baiño eskola geiago bage. ¡Eztu arrebaren antz aundirikan! Gaiñoak eztu izan Inazio beste maišurikan. Lau egun eztirade eskribi-tzen asi zala eta egin ditu esola batzuek ederragoak... ¡Erai begira choratu egin le-zake!

— ¡Bai! — esan zuan Pachi'k — ori saiatzen da ikasten, don Anjel'en aurrean lotsatzen dalako eskribitzen eztakiala esaten.

Mikaela jarri zan chingarra baiño gorriago.

— Ondo egiten dik — esan zuan amak — ez, i bezela izango duk, achur kerten ori...

— Pakea, Praiska, pakea — esan zuan don Jose'k — esanak esan ta goazen beste artikulo batera. Inazio ¿izango uke animorikan liña potzu aundi aretan sartzeko?

— Apaiz jauna, nere aitak eta nere amak agintzen badirade, ni joango naiz munduan azkeneraiño.

— ¡Ai don Jose! — esan zuan Praiska'k — ¡Nere sabeleko seme maitea ichasora bialdu!

— Arrazoi dauka Praiska'k — esan zuan Juane'k — gizona idia dabillen lekuan.

— Etzazute umekeriarik esan — dio Anjel'ek — Ichasoa bezelase etorri lezake ustetik guchien degunean, lurrean ere eriotzako ordua. Inor ezta itotzen Jaungoikoa'k nai eztuanean, eta arek nai duanean, ito lezake katillu bat uretan ere.



—Egi aundia, don Anjel—esan zuan Iñazio'k—la ba, aita, baldin beorrek eta amak nai badute, joango naiz salto bian Amerika'ra eta beriala naiz biurtu nere bosteun milla eta ondarrak arturik poltzan; negargarria da, emen pobreak egonik, gure chanponekin farra egin dezen prestuez aiek.

—Arrazoa duk —esan zuan aitak—¿Zer deizkiozu zuk, Praiska?

—¿Nik zer esatea nai dezute? Zuek egi ten dezutena ikusi... eta Ama Birjiña Karmengoa'k gorde dezala nere biotzeko semea.

—Au ikusia dago —esan zuan don Jose'k —egin ditzagun gaiñera bear diraden pres tamenak eta joan dedilla Iñazio ainbat lasterren.

Andikan zortzi egunera, sartu zan Iñazio Donostia'tikan ateratzen zan ontzi batean, ango ezagun batzuentzat Anjel'ek eman ziozkan karta batzuek, eta don Jose'k, nai ta nai ez, poltzan jarri ziozkan urre zar batzuek berekin zituela.

IV

Iñazio Indietara joan zanetikan bost edo sei illabetera, *Eche-alai* koak ari ziran goiz batean gosaltzen, galdara ori bat esnez betea aurrean zutela.

Naigabe aundiak igaro bear izan zituzten eche aretan. Mikaela'k galdu zituan bere kolore ederrak; Praiska eta Juane zeuden oso narrastuak, eta danak ezagun zuten eren arpegietan, biotzak negarrez zeuzkatela.

—Mikaela—esan zuan amak—¿Zergatik ez tun jaten?

—¿Jaten ari ez naiz ba, ama?

—¡Bai... eta oraindik ez tun mokadurik aon sartu!

—Ezin nezake, nai ta ere, ama.

—Jateko gogorikan ezpadun, kontu egin zan botika dala, eta ortzak estutuaz... barrura...; jaten eztuana, badakin... ill egiten dun...; baiña ¿zerk kendutzen din gogoa?

—Alperrik da ori galdetzea—esan zuan aitak—Anjel gañorik dago, eta onek ere alase nai du.

—Eta jarriko da, eta illko da—esan zuan amak—gosaldu zan, Mikaela; begira zeñen gozoa dagoan esnea. ¿Nai dun arrautza bat auspean epeltzea?

—Baiña ez izan gogorikan, ama.

—¡Alaba! Iduki ezan konfianza Jaungoikoa'gan; Anjel sendatuko dun aurki, eta joango ditun debru echera naigabeak.

—¡Ai nere ama maitea! Baldin Anjel il-tzen bada, illko naiz ni ere.

—¡Ill! ¡ill! ¡Ez ezan esan chorakeriarik, neska!... Barberuak esan din okerrera igaro zala. ¿Zer ba? ¿Ari bakarrik gertatu al zaio eizean dabillela tiroak irten eta eritzea? Amaikacho baditun alakoak sendatu eta ezer izan ezpaluke bezela gelditzen diradenak. Egia dun, lenbizi sinistu genduala gauza okerragoren bat; baiña orain Jaungoikoa'ri eskerrak ez zegon zergatik beldur izan,

—¡Au geiegia da!—esan zuan Pachi'k lurrera botaz eskuan zedukan koillara—¡Beti indianoa gora ta indianoa bera! ¡Berreun milla deabruk eraman bazuten ere etzan ezer galduko!

—¡Pachi!—esan zion aitak—Ez ezak An-

jel'en izenik aotikan atera bedeinkatutzeko ezpada.

—¡Bedeinkatutzeko!... Ematen digunagatikan...

—Ematen ziguk, guk merezi degun eta bear degun baiño geiago.

—Ba nik esaten dut zeken aundi bat dala.

—¡Pachi!—deadar egin zuten aitak eta amak maitikan.

—Echea bete urre iduki, eta ala ere utzi lana egin dezagula astoak bagiña bezela. ¡Damugarria da tiroak saiatzetan jo zuan bezela ez jotea garuñetan!

—¡Isillik egon adi, isillik, lotsagarri eta pizti gaizto ori!

—¡Ez naiz isillik egongo!

—¡Ik galdu bear gaituk! ¡Ik bizia kendu bear diguk! Ire anai gizajoa joan zan ezkerro, eztiguk utzi egun bat bakarra pakean igarotzen. ¡Ai nere biotzeko lñazio maitea! Ura echean egon balitz, beste gauzarik izango uen.

Eta ama gaiñoak eman zion negarrari; Mikaela ere ala zegoan, eta aitak, itzik esa-

teko almenikan gabe, makurtu zuan burua eta erori zitzaizkon begietatikan paparrera ur aleak baiño negar malko aundiago bi. ¡Madarikatua izan dedilla betiko, gurasoen begietatik negarra ateratzen duan umea!! Naigabez beterik gelditu ziran, jan baiño negar egiteko gogo geiagorekin.

—¡Juane! ¡Juane!—deitzen zuan gizon batek eche aurréko larrañetikan.

Juane, alkandoran esku-muturraz begiak igortziaz atera zan leiora.

\*—Kaišo Simon, ¿zer dakartzu onera?

—Berri onak Juane. Atzo Bergara'n izan nintzan eta korreoa eman ziden Amerika'ko karta bat zuretzat—esan zuan Simon'ek chapeletikan karta ateriaz—Bart berandu etorri nintzan, eta ez nuen aterikan jo nai izan.

Au aditu zutenean, danak arrapaztaka joan ziran larrañera, eta Juane'k artu zuanean Simon'ek eskuetan zedukan karta, pozezko garrazi bat egin zuan ezagutzean bere semearena zala. Praiska'k kendu zion eskue-tatikan, eta asi zan kartari laztanka paper guztia negarraz bustiaz. Beste ainbeste egin zuan Mikaela'k, amak'utzi zionean. Bakarrik

Pachi zegoan sorbaldak jasoaz ezer ezpalitza bezela.

—Baiña ¿zertako dirade aspamentu oiek ezpadakigu oraindikan Inazio'k artu dituan edo ez diruak?

Bai, Pachi'k, aitak esan zuan bezela, biotz gogorra zeukan. Etzitzaion ajolarik jakitea bere anaia bizi zala. Bere guraso eta arrebaren biotzak betetzen zituzten poza sinisteko, jakin bear zuan bere anaia aberatsa otezegoan. Baldin eta ez izanik ¿zer ardura zitzaion Pachi'ri, bizirik edo illik egon zedilla bere anaia?

Juane'k bereganatu zuan azkenean karta, eta idikiaz beldurrez, asi zan onela irakurtzen.

\*Nere aita, ama, eta anai-arreba mai-teak: zuengandikan alderatu nintzan ezkerro, naigabea eta tristura izan dut lagun, ordu guztietan. Ni Amerika'ra etortzeko Donosti'an sartu nintzan ontziak, izan zituan bidean milla eta milla estrapuzu, baiña ala guztiaz ere urreratu giñan zorioneko Indietarako lurrera. Danon ustea zan seguru giñala, baiña gure Jaungoikoa'k erakutsi nai zizkun orain-

dikan estutasun gogorrakoak. Beingo batean atera zan aize motizugarri bat, agertu ziraden olatu batzuek mendiak bezelakoak, illundu zan zerua eta turmoi orruaz bat-batera asi ziran onuntz orruntz, galda-galdan dagoan burnia baiño gorriagoko oiñaztuak.

•Gure ontzia, tanta luzeak eramanik eta chimistak zatiturik zebillen ur gaiñean, gaitaiña orbela ibiltzen dan gisan uda azkeneko aizearekin, noiz baiño noiz geldituko olaturen azpian, geiago ez agertzeko. Alako batean, *tarra-tar-tar-tar* egiñaz, banatu zan ontzi zarra, eta nerekin zijoazen lagunik geienak izkutatu ziraden ichasoaren barrenera geiago ez azaldutzeko. Nik orduan agur egiñaz mundu oni, artu nuan eskuetan, echetik atera nintzan besperan nere ama gaisoak lepotikan zintzilik jarri ziraden Ama Birjiña Karmengoa'ren eskapularioa, eta biotz gutitikan mun egiñaz eskatu nion gorde zezala, konbeni bazan, nere bizia, ez neregatikan, baizik nere guraso maiteak izango zuten naigabe samiñagatikan, eta salto egiñaz ichasora, eldu nion ur gaiñearf zebillen zur zar bateri.

»Zur onen laguntasunaz piskaka piskaka nihoan gerturaten ichas basterrera, baiña nere indarrak aitu ziraden, eta banioan begiak betiko ichitzera, ikusi nituanean neregandikan ez urrutira, iru gizon erdi larrugorrian chalupa chiki batean, euren bizia galtzeko zorian neregana zetozela; zerura begiak jasoaz egin nuan azkeneko alegiña, eta ozta eldu nintzan chaluparen saietzera. Artu ninduen besoetan kristau on aiek, eta andikan laster jarri nuen nere oiña aspaldi ikusi ez nuan lur legorrean. Baiña ¿zein erruki-garria! Nere besoak etenik zeuden eta nere eskuak danak odolduak, zutirik egoteko gauza ez nintzala. Sekula, bear bezela, maitatuko eztitudan gizon aiek, egin zuten angalla bat, etzan ninduen bertan, basorik-baso eldu giñan erri chiki batera; an, euren ume bat banintza bezela, eta ama batek bezin naitasun bigunarekin sendatu eta zaitu ninduten. ¡¡Jaungoikoa'k sartu ditzala zeruaren erdi-erdian aiñ biotz ederreko gizonak!!

»Piska bat indartu nintzanean, biotzaren erditik eskerrak emanaz nere ongillari, joan nintzan nere osaba bizi izan zan errira. Ikusi



nituan osabaren testamentarioak eta... baiña eztut nai zuen biotzik zauritu, gizon gaizto aiek neri esan eta egin zizkidaten gauzak esanaz.

»Esan ziden gezurretan nebillen bat nintzala, eta burla eta farra egiñaz bultzaka bota ninduen echetikan. Baiña gizonen artean biltzen ezpadegu justiziarik, gure Jaungoikoa'k begiratuko du guregatikan. Ala ba, esperantzarikan ez galdu, eta bien bitartean poztu zaitezte, besterik ezean, jakiteakin bizi naizela guztion onerako bear egiteko.

»Ikusi ditut Anjel'en adiskide batzuk ere, eta euren artean anai batek bezela nai didan euskaldun bat. Danak esan dire lagunduko didatela alegin guztian.

»Denbora askocho bearko dut gauza abek garbitzen, testamentarioak gogortuak daude guri ostutako armakin, eta diruak emen, or bezela, ate asko idikitzen ditu.

»Uste dut, oraingo eskonduak egongo dirala Anjel eta Mikaela, eta eztago zer esanik biziko diradela aingeruak bezela, don Jose eta andra Josepa'ren konpañian; egu-nero gogoratzen naiz guztiokin.

»Eskumuñak Simon uztargiñari, Echeberrri'ko Maria'ri eta nerekin oroitzen dan guztiari, eta amak segi dezala erregutzen oi duan bezela Ama Birjiña Piedadeko'ri, ni gorde nazan orain arte bezela.»

—¡Ai nere sabeleko puska!—esan zuan Praiska'k eskuak gurutzetuz—¡Zenbat estutasun, eta zer gertutikan ikusi duan eriotza nere seme maiteak! Baiña Ama Santisima'k gorde du.

—¡Balio izan dionagatik!—esan zuan Pachi'k.

—¡¡Pachi!!—esan zuan aitak sekula baiño asarreago—¡oiek eztirade zure gurasoetatikan artu dituzun lezioak!

—¡Gu errukiñak!—esan zuan Praiska'k negar egiñaz—ume onések kendu bear digu bizia, eta bialdu bear du bere burua kalabozon batera.

Anjel zegoan jaikitzen etzala eritu zan ezkerro, ta sarri bialtzen zuten Pachi aitak eta amak aren berri jakitera. Pachi zan ge-roago eta zakarragoa, eta ainbeste naigabe ematen zieten echean egunero bere gura-

soai eze, asi ziran osasuna galtzen beldur izateko moduan.

¡Beste gauzarik zan Pachi apaizaren echean! Izutuak zeuden aren argitasunarekin eta izketa legunarekin; eta andra Josepa'k eroturik Pachi ala ikusita, gertatu oi zion makiña bat mokadu gozo, eta erakusten ziozkan nun eta nola zeuden echeko gauza guztiak.

V

San Migel egun batean, eguzkiak Irimo gaiñetikan iges egiten duan sasoiari, kee beltz mordo batek irteten zuan Koroso'tikan Anzuela'ra datorren bidez gaiñean zegoan pagadi batetik; señaile zan chendorren bat zegoala egosten. Eta ala zan izan ere.

Ikazgin bat chendorrari betegarria sartzen, eta iru edo lau aren lagunak, ari ziran pagadi barrenean subill gertatzen beste bat sututzeko.

Chendorraren garaiko aldean ikusten zan echabola bat, iru pago adarrekin egiña eta garoz azpitik eta zoziez gaiñetik estalia.

Ikazgin aietako bat joan zan echabolara, ta zirri bat egin zion echabolako ate muturrian zegoan suari; sutan zegoan gal gal gal egosten topinkada bat baba; jarri zuan talo burnia beratzen, eta botarik ganbela batera ura, gatza, eta arto iriña, asi zan zaplaka orea gertatzen taloak egiteko.

Abek erre zituanen, jarri zituan eskuak tronpetan gisa eta *uuu...u...u* egin zuan deardar luze bat. Bai, erantzun zioten lagunak, eta utzirik aizkorak pago gerrietan sartuta, abiatu ziraden echabola aldera, batak gerrikoa lotu, besteak zintz egiñaz...

Jan zituzten baba eta taloak, erre zuten pipada bana, baiña ala ere iñor etzan mugitzen. Illundu zuan izarrak agertuaz, eta ari ziran ikazgiñak chuchu muchu alkarri belarrira itz egiñaz; ezagun zuten soseguz etzeudela.

Gizon bat azaldu zan bideak zear, eta asi zan pagadia gora echabola aldera; ura ikusi zutenean jaiki ziraden ikazgiñak.

—Guazen—esan zuan gizon arek eztezagun denborikan galdu; nik goiz joan nai

nikek echera inork gauza charrik sospechatu eztezan.

—Guazen ba—erantzun zuten ikazgiñak.

—¿Ezer badaramazute?—esan zuan gizonak.

—Ezta ezercho ere...

—¡Or konpon, Mari Anton!... Nik zera mazkiat bi pistola eta kañabeta.

—Gu goaz lapurretara eta ez eriotzarik egitera—esan zioten ikazgiñak.

—Bakoitzak ondo datorkiona egin dezala—esan zuan pistolatadunak—baiña eztezagun denborikan galdu. Bidean esango dizuet zer egin bear degun.

Beltzitu zituzten arpegiak iduri bustiarekin, eta joan ziraden pagadia bera.

—¿Zergatikan eztator Michel?—esan zuan armatuta zihoanak.

—Chendorra betegarri eske dago eta bear da bat emateko—erantzun zuten ikazgiñak.—Gaiñera, aren lanak eztu guchiago balioko guk egiten degunak baiño.

—¿Nola izan lezake ori?

—Kantuan egiñaz.

—¿Zertarako?

—Oñati'tikan datozenak aditu dezaten, eta bigar edo etzi okerrikan balitz, esan dezaten San Migel arratzean ikazgiñak pagaduan zeudela.

—¡Mutill azkarrak zerate!

—Bai... eta egin dezagun aberatsak izateko bidea.

Andikan ordu erdi batera zetozen Koroso'n barrena bi gizon, elatzean zinzilika dagoan abarka baño igarragoak eta ukalondotikan ere berriketa zerioela. Zetozten baikoitzak bere kana bizkarrean zutela, eta loturik aien puntan aspandar pieza laurden bana.

Pagadi goenean aditzen zan kanta bat esaten zuana:

Goiz, eguerdi eta arratz  
Beti porru salda....,  
Koipatsu nai izatea,  
¿Arrazoi ez alda?  
Burrun burrun bun,  
Koipatsu nai izatea  
Burrun burrun bun  
¿Arrazoi ez alda?

— Michel deabru orrek ezetik beste amesik kapañeri burla egitea baiño—esan zuan batek.

—Eori ere ez aiz ba isilikan egotekoa—esan zuan lagunak—¿zergatikan erantzuten eztiok, jakiñik ik dakizkan bezela, ichu batek aiña kanta...?

—Aspaldi onetan joan zaizkidak kantatzeko gogoak, don Jose'n echean igarotzen danarekin.

—Arrazoia duk; chit damugarria duk indianoari gertatu zaiona.

—¡Anjel gizajoa! Sinistu zak, baldin da baldin ura iltzen baduk, gure Manu'ri etzaiok sekula begirikan legortuko.

—Berak eman ziokan lenbiziko bularra, eta nai zioagu geure seme bat bezela. ¿Eta don Jose gizajoa? Ikusiko duk: Anjel iltzen bada, laster jarraituko ziok ondoren.

Ala itz egiñaz bazijoazen kapañak eren bidean, eta Michel gelditu zan geroago ta gogozago kantari.

VI

San Blas'eko apaiz jaunaren echea zegoan inchaur arbolaz inguratua, eta eleizatikan ogeirenbat kana bezela; zan arlanduzkoa eta egoe aldera zedukan baratza eder bat.

Alde onetaraſe zeuden lo egiteko gelak eta bai ere sukaldea. Sukaldeko leioan azpian zegoan echecho bat; an idukitzen zituzten, zimaurrez gañera, achur, laia eta ostango joan-etorriak.

Denbora aretan oitzen zuten nola po-break ala aberatzak, goizean goiz jaikitzea, eta orregaitikan arratzeko zortzirak ezkeron aundi eta chiki egon oi ziran anakaz gora.

Lenbiziko loa izan oi da gozoena eta astunena. Don Jose lo bete-betean zegoan; andra Josepa ere bai; Anjel bakarrikan zegoen ernai naiezak loa galerazitzen zion-eta. Zakurrak okulluan asi ziraden zangaz.

—¡Osaba!—deitu zion Anjel'ek don Jose'ri alboko gelara.

Apaizak etzion erantzun; zakurrak etziraden isiltzen, eta



—¡Osaba! ¡osaba!—deitu zion bigarren aldiz illobak.

—¿Zer naiduk, Anjel?

—Pinto'k eta Leon'ek estu zaunkatzen dute, eta iruditzen zait echechoko teillatuan nor edo nor dabillega.

—Bai... aizeak erabiliko zituk teillak, eta zakurrak orreatikan zaunkaz ariko dituk.

Leon eta Pinto ari ziran geroago eta garrazago, norbaitek larrua kentzen bazioten bezela.

—¡Osaba!—deitu zuan berriro Anjel'ek —uste dut sukaldeko leioari bultza egiten diotela.

—¡Ez adi chorua izan, Anjel!—esan zion don Jose'k erdi lotan—aizean otsak dituk oik.

—Ikusi egingo degu ori—esan zuan Anjel'ek bere artean, eta zutikan egoteko indarrik ez iduki arren, jaiki zan ogetikan eta isillikan idiki zuan leioa, baiña aiñ illun zegoan eta alako aizekin zebillen eze, etzuan ez ezer ikusi ez ezer aditu. Ichi zuan leioa eta bazegoan oe aurrean.

Pinto eta Leon ari ziran geroago eta es-  
tuago. Anjel'ek aditzen zituan len baiño  
obeto teilla otsak eta sukaldeko leioari egi-  
ten ziozkaten bultzatuak.

—Ez, ikusi bear dut zer dan ori—esan  
zuan bere artean, eta eskopeta artuaz joan  
zan sukaldera; an zegoan argi motel bat,  
katillu baten olioaz jartzen zuana egunero  
andra Josepa'k, Anjel eritu zan ezkeru.

Anjel sukaldera eldu zanean... ¡raui!...  
edegi zan bat-batera leioa, eta arpegia eta  
eskuak belztuta zeduzkan gizon bat agertu  
zan bertan pistoleta eskuan zuela. Anjel'ek  
apuntatu zion bere eskopetarekin, baiño ti-  
roak irteteko astirikan gabe erori zitzaion  
eskuetatikan eskopeta, zatitua lapurrak ti-  
ratu zion pistoletazoarekin.

Lapurra, beste iru ondoren zituala, sartu  
zan salto batean barrura; eldu, zioten denen  
artean Anjel'i, bota zuten lurrera, estali  
zioten aoa zapi batekin eta lotu ziozkaten  
eskuak eta oiñak. Beste ainbeste egiñik don  
Jose eta andra Josepa'rekin, artu zituzten  
diru eta gauzarik onenak eta balio aundiene-  
koak. Ongi ezagututzen zituan lapur aietako

batek eche aretako zokoak, bada zuzen birlatu zituzten batere okerrikan gabe ondo iskutatuak zeuden ontzako zarrak eta beste gauza eder asko.

Bete zituzten iru saku, eta nola ala zamatuaz etzan errez leiotikan iges egiten, atera ziran atariko ate zabaletikan.

Auzoak aditu zuten lapurrak egin zuan tiroaren otsa, eta gogoraturik gauza okerren bat, zebiltzan illunean, batzuek makillakin, eta zuanak eskopetarekin, non izan ote zan ots ura, lapurrak agertu ziradenean sakuak bizkarrean zituztela.

—¡Geldi or!—deadar egin zuten lapur billa zebiltzanak, baiña aiek orpoak jasoaz asi ziraden igesi.

*¡Dinbi! ¡danba!* aditu ziran tiro bi, eta lapur bat iztarrean eritua erori zan musuz aurrera; beste irurak salto egiñik errekachoa esmendatu ziran an gertuan zegoan chara baten, eta chara zear joan ziran Jaungoikoa'k daki nora.

## VII

Lapurreta izan zanetikan zortzi illabete-  
ra, uda-berriko arratzalde eder batean, zi-  
joazen don Jose eta Anjel, *Eche-alai* aldera.

Eskopeta orde zeramaten esku-makilla  
lodi bana, eta oien arrimoan pauso ematen  
zuten nekez, bide chiorra gora.

Ezin ezagutu zitzakean apaiz jauna. Aren  
lengo arpegi argi eta ederra oso narrastua  
zegoan, eta bere begirakuna tristean ikusten  
ziran animako naigabeak. Etzegoan asko  
obeki Anjel; gizajoaren arpegian argaltasuna  
eta gorputzaren makurra ikustean etzion as-  
tebeteko bizirikan emango.

Apaiz gizajoak, bera laguntasun premian  
arkituagatikan, lagundu eta animatzen zuan  
bere illoba.

— ¡Anjel, gizajoa! ¡Animatu adi! — esaten  
zion: — ¿Eztuk ikusten zer arratzalde ederra?  
Muga gustiak loraz eta arbola danak ostoz  
betetzen ari dituk, eta adar bakoitzean chori  
bat ari duk kantari... ¡Juanak joan...! oroi-  
pen mikatzak aztu egin bear dituk. ¿Zer nai

duk apostu, egun guchi barru ezer izan ez bau bezela agoala?

—¡Ai osaba! Egia da arbolak, zelaiak, choriak eta inguru guztiak farrez eta kantari daudela, baiña nere biotza negarrez dago.

—Lenago ere esan diat, jua zana jua zua. Orain egin bear duk, igarotakoak aztu eta lenbait lasterren sendatzera. Oraindikan gaztea aiz eta denboraz ezkonduko aiz Mikaela'rekin eta danak biziko gaituk ongi. ¡Zer! ¿Ez alaiz gauza *Eche-ala*? raño joateko?

—Beldur naiz, osaba, elduko ote naizen nik chit opa izanagatikan.

—Saiatu gaitezen ba, Mikaela gaisoak etzidukak gu besterikan nori begiak itzuli, eta iñola al degula etzioagu utzi bear bakar-dadean bere anai gaiztoak ematen diozkan tratu gogorraren artean.

—¡Bere anaia! ¡Ai osaba! Ez egonik lurrean justiziarikan alako pizti gaiztoarentzat. ¿Non da Jaungoikoa'rena agertu gabe?

—¡Anjel! Jaungoikoa justua duk eta beti zeduzkak gogoan, gizonak egiten ditugun gauza charrak eta onak. Pachi'k, naigabeak

emanaz kendu ziek bizia bere gurasoai, eta sinistu zak, lencho edo geroago arkituko duk merezi duanarekin.

Onela izketan eldu ziraden osaba-illobak *Eche-alar*'ko atari aurreko inchaurretara.

Orduanche zetorren Mikaela barrenetikan, mantalean artalea arturik eta *purra* esanaz larraiñean aztarka zebiltzan egazti batzueri. Gaiñoa zegoan beltzez jantzia, ¡Lutua zedukan gorputzean! ¡Lutua biotzean!

Alegiñak egin zien osaba-illobari sartu zitezela sukaldera, baiña aiek naiago izan zuten eseri atari aurrean zegoan liña-arri baten gaiñean, etzuten indarrikan eskallerak gora ta bera ibiltzeko-ta.

—¿Eta Pachi?—galdetu zion apaizak.

—Goizean Bergara'ra joan da, jauna—erantzun zion Mikaela'k.

—Artoak ereiteko egunetan gaude, eta oraindikan eztezute ankarik soroan sartu, ikusten dedanez. ¿Zer asmo du zure anaiak nekazaritzeari ala atzera ustean?

—¡Ai don Jose! Eztakit nik zer pasatzen dan gure echean. Bi edo iru bidar izan gerade deituak Bergara'ra Pachi eta ni, aitor-

tzeko beorren echean egin zan lapurreta arengatikan kartzelan sartu zuten ikazgiñak zerbait esanik. Aspaldi onetan ezta iñor gurerekin oroitzen, baiña ala ere nere anaia joaten da Bergara'ra egun biz bat. Eztakit nik zer esan eta ez zer pentzatu, eta daukat erru gaizto bat gauza onechek ez otezituan nere guraso maiteak galdu. ¡Ai nere aita eta ama biotzekoak! — esan zuan Mikaela'k negarra chirriotan zeriola.

—Ia ba Mikaela, sosega zaite pizka bat —esan zion apaizak. — Konformidatea da kristau guztiak degun zor aundi bat, Zure gurasoen bizia Jaungoikoa'na zan eta berak kendu zien. ¿Aienatu bear gera gure Jaungoikoa'k egiten duanagatikan? Paziencia ba Mikaela, eta esan egiguzu zerk zure ustetan ill zituan zure guraso zorionekoak.

—Izango dira sei edo zazpi illabete— esan zuan Mikaela'k—asi zala etortzen gabaz gure echera, Pachi'kin itz egitera, echura gaiztoko gizon bat. Bai nere gurasoak eta bai ni, arritu eta ikaratutzen giñan gauza arekin. Arratz batean, oeratu giñanetikan laister ikusi nuan nere aita, jaikirik oetikan

zijoala oiñ puntetan Pachi'n gelako atera. Maiz oi zuan bezela orduan ere zegoan nere anaia len esan dedan gizon arekin atea barrerrik giltzaz ichirik. Ordu laurdenen bat egon zan aita ate ondoan eta biurtu zan berri oera. Andik puntuko sentitu nituan nere aita eta ama gaisoak, sotinka eta negarrez urtutzen zeudela, baiña isillik, ni lo nengoalako ustean. Biaramon goizean jaiki ziradenean ozta-ozta zebiltzan zutik eta esan zitakean igaro zutela gaiso-aldi izugarriren bat... eta zerbait izan bear zuan: andik iru illabetera ill zan nere ama maitea eta illabete geroago ichi zituan betiko begiak nere aita gizajoak.

—Egia balitz—esan zuan Anjel'ek beko-  
kia joaz esku zabalekin—egia balitz neri  
orain bururatu zaidana...

—Isilikan egon adi, Anjel -- esan zion  
osabak—alako gogorapenik egin gabe. ¡Ori  
egia balitz, infernuak ere ez likek artuko!

Mikaela'k etzion igarri osaba-illobak esan  
nai zutenari.

—Eta ¿zer bizimodu egiten dezu, Mikae-



la gaiſoa, gurasoak ill ziraden ezkeru, zure anaiarekin?—esan zion Anjel'ek.

—¡Zer bizimodu esaten du! Sekula eztiot arpegi argirik ikustén, sekula eztiot itzik egiten, eta maiz, ostikoka eta golpeka zauritzen nau—esan zuan neska gaiſoak begiak igortziaz amantalaren ertzakin.

—¡Puzuni gaiſtoa!—esan zuan Anjel'ek ukabillak estutuaz. — Ni egongo naiz berakin eta nik esango dizkiot merezi dituanak.

—Ez, ez, Jaungoikoa'ren amorioagatikan, ez ezer esan Pachi'ri—esan zuan Mikaela'k beldurrez ikara—ilko ninduke baleki nik ezer esan dedanikan.

—Ondo da, ondo da—esan zuan don Jose'k. — Iduki zazu pazientzia egun batzuetan; Jaungoikoa'k emango dio osasuna Anjel'i eta orduan nere illobak aterako zaitu otzo gaiſto orren atzamarretatikan.

—¡Jaungoikoa'gatikan bada, isildu gaitzen! An nun datorren nere anaia,

Alaſe zan. Orduanche zetorren Pachi eche azpiko landatikan aurrera. Danak isildu ziran alkarri begiratuaz.

Pachi, ikusi zituanean don Jose eta An-

jel, piskabat astoratu zan, beldur zan zerbait esango ziotela merezi zuan bezela-ta, baiña laister bereganatu zan eta asi zan kopeta illuntzen.

— ¿Nondikan nora abill, Pachi? — esan zion apaizak.

— Simon'enean izan naiz lengo egun batean agindu nion uztarria egin oteduan.

— Denbora asko bear izan duk emendikan Simon'enera joan etorria egiten.

— Simon orrek ba berakin bazkaltzeko pakerikan eztit eman eta ala gelditu naiz.

Apaizak eta Anjel'ek sinistu zioten, eta eren artean gogora zuten, Mikaela deskuidatu egingo zala esatean Pachi Bergara'n zala.

— Eta ¿zer asmo daukak, Pachi? — esan zion don Jose'k — Auzera danean artuak erein zituztek eta ik oraindikan zoi bat baka-rrikan eztuk itzuli. ¿Zer egiteko asmoa duk?

— Ez erein da nere asmoa.

— ¡Silikan ago alakorikan esan gabe! — esan zion don Jose'k.

— Echea eta lurrak saldu eta Oñati'ra nua bizi izatera nere arrebarekin. Onen baliorekin jarriko dut denda koskor bat, eta

ogitarako lain aterako aldegu, eta ez beti emen lertutzen aitu, taloak eta babak jan eziñikan.

—¡Baztarra saldu!—esan zuan apaizak zerura begiratuaz—¡Echea saldu, esan duk! ¡Eztuk posible, Pachi! ¡Eztiat ikusi artean siñistuko aiñ biotz gogorra eta aiñ buru maku-rra dedanikan! ¡Ire aurrekoak jaio eta bizi izan ziran echea! ¡Ire gurasoak jaio, bizi eta ill ziraden echea! ¡Eori jaio aizen echea! ¡¡Pachi!! Edo chanchetan abill edo erotu egin aiz....

—Ez bata, ez bestea—esan zuan Pachi'k asiaz asarratzen—¿Zer sartu daukate erok iñoren gauzatan? Ni naiz anaiarik nausiena; nere aita ill zan testamenturikan egin gabe, eta nik egin nezake eche onekin gogoak ematen didana.

—Echea eta lurrak ireak bezela dituk ire anai arrebanak.

—Nik eman ezkerro bakoitzari aginduak dauzkaten bosteun dukatak, eztu iñorchok zer ikusirikan.

—¡Zer negargarria! ¡Zer gaiztakeria!—esan zuten batera osaba-illobak Mikaela gai-

soa Pachi'n aurrean begiak jasotzen atrebitu eziñik negarrez zegoan bitartean.

—Esan dut lenago ere: nik egingo dut gogoak agintzen didana—esan zuan Pachi'k geroago eta asarreago—Zaitu bezate euren echea eta ez auzokoa, iñoren buruko miñak astoak iltzen ditu-ta.

—Pachi jiratu zan beste aldera bizkarra jasoaz, eta sartu zan echean kantatuaz:

Nik badut liburucho bat  
Duana esaten,  
Iñor eztedilla asi  
Auzo gobernatzen.

—¡Mikaela! — esan zion apaizak — atoz gurekin, iges egin ezazu anima galdu orregandikan, eta etzaiozu geiago arpegira begiratu.

—¡Ai don Jose! Ori egingo banuke ez nuke ordubeteko bizirikan—esan zuan Mikaela gaiñoak beldurraz ikara apaizangana arrimatuaz.

—¡Mikaela! ¡Mikaela! — ots egin zuan Pachi'k sukaldetikan — or ez zaitzu ezer ere galdu, or eztaukazu zer egiñikan.

—Etzaiozu kasorikan egin, eta atoz gu-  
rekin—esan zioten don Jose eta Anjel'ek  
neska gaiñoari esku muturretikan elduaz.

—Ez, ez, Ama santisimarengatikan; iku-  
siko balu ni erokin nuela, eun pauso eman  
baño lenago ilko giñuzke irurak. Agur, agur,  
obeitu egin bear diot, bestela ni errukiena—  
esan zuan Mikaela'k don Jose'ri eta Anjel'i  
esku banatikan elduaz eta belaunak ikaraz  
zituala, eta sartu zan barrura negarrez eta  
atzera begiratuaz.

Osaba-illobak asi ziraden bide chiorra  
bera, itzik egiteko almenikan gabe, eta noiz  
baño noiz negarrak urtengo. Galtzadako zu-  
bichora eldu ziradenean, eseri ziran atsegi-  
tera.

*Tan, tan, tan*, ari zan joten Ave-mari-  
takoa San Blas'eko kanpaia. Apaiza eta An-  
jel jarri ziran buru utzean eta errezatu zituz-  
ten iru Ave-maria.

—Sinistu beza osaba—esan zuan An-  
jel'ek errezatu zutenean—Pachi'k salduko  
du echea, eta ezta konbeni beste eskuetara  
aldatu dedin *Eche-alai*. Oriše erosten en-  
pliatuko ditut, lapurrak utzi zizkidaten diru

apurrak, eta lñazio datorrenean, Jaungoikoa'k nai badu etorri dedin, esango diot: lñazio, or daukazu zure gurasoen echea, zure anai madarikatuak saldu zuana, eta Jaungoikoa'k nai izaten badu Mikaela eta ni ezkondu gaitezten, *Eche-alai*'an biziko gera lñazio'n etorrera arte, eta gure alegiñak eta gure izerdiak jantziko ditu orain gorri dauden lur ederrak.

--¡Ori Anjel, ori!—esan zion osabak lepotikan elduaz—lurraren gaiñean eztuk irebiotza baiño ederragorikan...

—¿Simon uztargiña ezta an datorren ura?—esan zuan Anjel'ek.

—Bai, bera duk—esan zion osabak—eta eztik echetikan datorren antzikan. ¡Gezurren bat esan dik Pachi'k!

Simon jaietako arropakin eta asto bat aurrean zuala eldu zan zubira.

—Arratzalde on, edo gabon onezkero, don Jose lagúnakin—esan zuan Simon'ek astoari *isssooo* esanaz.

—Kaiso Simon. ¿Nondikan zatoz?

—Or Tolosa aldean izan naiz uztarri batzuekin.

—¿Eta ezerki egin da?

—Eztut ba gauza aundirikan egin jauna. Bi egunean an egon naiz eta erekin echera ez etortzeagatikan, utsian eman ditudala kontu, ardit baten irabazirikan gabe. ¿Eta zer egingo nuan? Gaurko egunean echetikan kanpora dabillenak poltza beti eskuan bear du, eta ala ere or be alde orretan zai zai dau de noiz bat artuko, larrutzeko; nik beiñepeñ oingo biajian is-isilik ederrak artu ditut; esaten diot; gaurko egunean ezin ankarikan aterra lezake echetikan. ¿Eta eurok, pasioan izan dira? ¡Ondo alase, ondo! Konbeni zaizka orlako ibilli batzuek don Anjel'i

—Bai ba, ustez uste gabe *Eche-alaí* raiño eldu gera.

—¡Ola ola! Poliki izan da. Eta ¿zer dio jende arek? ¿Iñazio'n berririkan izan dute? Eun urte badira ikusi eztitudala, ez Pachiko ez Mikaela.

—Zorigaiztoan eztute ba Iñazio'n berririkan.

—Bai, Iñazio echean balego beste ollarek egingo luke kukurruku *Eche-alaí* an. Mundu onetan ezta izango amarik Pachi ori

baño aur okerragorik jaió duanik, eta bestela galdetu deiotela beran arreba zintzoari eta beran baztarrari. ¡Ai! Juane'k eta Praiska'k, zeruan egon ditezela, jasoko balute burua eta orko joan etorria ikusi, bereala lirake berriz illik.

—¿Badakizu Pachi echea saltzera duana?

—¡Aitaren eta Semearen!... ¿Zer esaten du, don Jose?—esan zuan Simon'ek siñatuaz.

—Aditzen dezuna.

—¡Ba! Ezin sinistu lezake orrelako erokeririkan. ¡Echea saldu, Jaungoikoa'ren izenean! Ez nuke salduko nik nere mundu onetako urre guztiagatikan ere. ¿Zer da gauza oberik esan al izatea baño egunero: sagar au nere aitak sartua da; inchaurren ori nere aitona; or egoten zan nere amona goruetan; an nere ama gure praka zarrak konpontzen; eta beste alako milla eta milla gauza, nik ezin esan nitezkeanak? ¡A, Pachi pardell! Baldin Inazio'k baleki zer igarotzen dan bere echean, laister litzake etorri eta galerazi Pachi'ri astakeri ori egitea. Erakatsiko lioke ark, norekin eta nola dabillen Pachi alper ori.



—Baaa... Iñazio gizajoak ikusi ez dezan bere gurasoen echea iñoren mende, nai du nere illobak erosi.

—¡Ongi asmatua! orainche erori naiz astotikan, don Jose—esan zuan Simon'ek irri-barre egin eta begiak kiñatuaz—¿orrela egia da Mikaela eta don Anjel ezkontzen dirala? Urte askotarako ete osasunarekin izan dedilla ni uztargiña naizen bezela. Urre puska balitz baña geiago balio du neskacha orrek. Ama berbera atera da. ¡Eta zer bizimodua ematen dion gaisoari perdulario orrek! ¡Aigure Jaungoikoa! ¡zer gauza beltzak ikusten diran mundu onetan!

—Baña nola Anjel'ek, lapurtua izan arren, aberatsan otsak dituan, Pachi'k asko paga erazi naiko diola, dadukagu bildurra.

—Arrazoia du don Jose... ¡eta nork! ¡Pachi'k!.. Diruagatikan salduko luke bere odola ere.

—Ba orretarako egin bear diguzu mesedebat, Simon.

—Nere animarekin eta nere biziarekin, jauna. Esan beza zer egin bear dedan.

—Zedorrentzat balitza bezela, *Eche-alai* erosi.

—Ez beza geiago itzik atera. Bigar Jaungoikoa'k nai badu meza ondoan gañerakoa itz egingo degu.

—Eskerrak milla, Simon.

—¡Zer esker eta zer...! Eskerrak izan oi dira apaiz-echekoan... Barkatu beit don Jose, astakeria bat ia esan nuan-eta. Ainbestekin gabon, eta bigar arte. ¿Nai dute echeraño laguntzea?

—Ez Simon, eskerrik asko, eta eskumunak emazteari.

—Asko poztuko da. Eman beiote nere izenean andra Josepa'ri.

—Bai, eta gañera esango diogu bigar zu zatozenerako gertu iduki ditzala zartainkada bat urdai-azpiko eta pichar bat chakolin.

—¡Je, je, je! Eztira gaizki etorriko, jauna.

—Bigar arte ba, Simon.

—Ongi bijoaz.

Uztargiña joan zan bere bidean, eta osaba-illobak asi ziraden eche-aldera arrimatzten, eguzkiak bezin argi egiten zuan idargia lagun zutela.

## VIII

Oñatiko kale bazter bateko eche illun batean zegoan denda chiki bat. Atean aurrez-aurre zegoan mostradore edo mai beltz luze bat ezgauzaz betea.

Denda aretan sartutzen ziradenak guchik ezer erosten zuten.

Aruntz zijoazenak joaten ziraden dirua artu edo dirua ematera; ba Pachi'n tratabiderik maiteena zan, estu-estu arkitzen ziraden nekazari gizajoai odola zurrut egitea, emanaz dirua ogei erreal bakoitzeko lauren irabaziakin illean.

Mai aren ostean egon oi zan Pachi, edo diru kontatzen edo atzamarrak kontatuaz konturen bat zuzentzen. Noizik beiñean deitzen zuan an ostean zegoan ate chiki batetik, eta etortzen zan barrendik Mikaela liburuan jartzera anaiak esaten ziona.

Baiña Mikaela onek ez zuan *Echealari*ko neskacha eder aren antzikan; zegoan guztiz arlote jantzia, oso argaldua, <sup>o</sup> ta aren

lengo larrosa kolore ederrak biurtu ziraden bustin kolorekoak.

Gaišo arentzat ez zegoan Jesus bateko atsegiñik; beti lanean, sekula ez arpegi argirik ikusi eta itz bigun bat aditu gabe bere anaiagandikan. Errukigarri aren saria izan oi zan gosea, itz gogorrak, eta maiz belarrondokoak eta ostikadak. Mikaela gaisoak ez zun beste pozik, ezpada bakarrik arkitzen zanean, negar eta negar egitea, oroituaz bere biotzeko guraso eta Inazio maitearekin eta baita ere Anjel'ekin. Ainbeste negarrekin begiak zeuzkan gaisotuak, baiña ala ere gaišo aren ezpañetatik ez zuan irtetzen aiene batek bakarrik. Pachi'n begirakunak uzten zuan beldurrez ikara eta non zegoan ez zekiala. Beldur onekin baliatuaz egiten ziozkan madarikatu arek zakur amorratu bati opa bear ez zaizkonak, eta ikusirikan bere arreba, arriari negar eragiteko estaduan, orduan eta gogorrago izaten zan berarekin.

¡Bai! ¡Arehek igarotzen zuan egiazko martirioa!

Illun arratz batean sartu zan Pachi'n dendan, arpegia eta eskuak beltzak zituan

gizon bat, eta ez gabon eta ez berrion, eseri zan zokoan zegoan aulki batean.

Ura ikustean, jaiki zan Pachi salto batean eta ichi zuan giltzaz dendako atea; urrena sartu zan barrenera, eta ikusirik arreba bere lanean zebilela, ichi zuan osteko ate chikia ere, eta eseri zanean bere lekuan esan zuan:

—¿Zerk ekarri au onera, Michel?

--Deabruak eraman nazala, ez i ikusteko gogoak, Pachi, baizikan etorri nauk iri esatera, choria aspertu dala kaiolan egotez; eta esan zidak eze, egiten ezpadiugu bideak ura andikan laister ateratzeko, denbora pasa, kantuan asiko dala eta aren kantuan otsera bat edo bat bat joango zaiola lagun egitera. Ni an egon naizen artean, ainbestean ere egon duk, baiña ni andik atera nintzan ezkerro, eskerrak kapaiñak egin zuten deklarazioari esanaz ni San Migel arratzean Istingagorri'ko pagadian egon nintzala kapaiñari burlaka kantuan, gizajo aura, geroago eta asarreago zio; eta esaten dik, agindu ziozuten bezela andikan ateratzen ezpadezute, dana zan bezela garbi esango duela.

Pachi'k ukabillarekin maia joaz eta birau bat botaz esan zuan:

—Eta zergatikan bota bear zaizkit neri chalma guztiak, izanik danak okerra egin genduanak?

—Poliki itz egizu, *konpañero*, poliki. Nik egin diat nere eskota. Zuek eman zizkidatzuzten ogei ontzako zikiñagatikan an egon nauk ogei astean itzalean, eta zuek, urre eta zidarrezko gauzan gaiñera, berreun bana ontzako gorde zenduztenok, eztezute oraindikan ankarik sartu eguzki guchiko aposentuan. Besteak eskutatu ituan, deabruak zekik nora, eta oraiñ, i bakarrik aiz beldur izan bear duana... badakik, untura oriekin kaio-lako atea idikitzen ezpadiok choriari, iges egin dezan.

—¡Sinistu nazak, Michel! ¡Chanponikan ez zidukat!

—¡Beste zakur bati ezur ori, Pachi! ¡Pachi, kontuz ibilli adi! Anzuela'n asi duk zurru-murru bat, on aundirikan egingo ez diana,

—Eta zzer ajola zaidak neri Anzuelarren berriketagandikan?

—¿Eztakik, Pachi, Pepete'n ipuia?

— Eztiak nai ere jakiterit.

— Baiña çnola izan lezakeek ik ez jakitea, bularreko aurrak dakitenean zer igaro ziztaion Pepete dontsuari?

— Michel, utzi zaiek kopla oieri, ez zeukatek zer ikusirikan nerekin eta...

— ÇEz dutela zer ikusirik irekin? Aitu zak, aitu zak eta aurki esango didak daukaten edo ez.

«Pepete uen Legazpiar bat, eta ik egin dean bezela saldu ziran bere echea, eta bizi uen, jan edan eta josta, errege bat baiño egokiago... baiña atera eta ez sartu, agertu uen kuchatillaren zorua eta joan ituan deabruechera Pepete'n jan-edanak eta jolasak. Ondo nai eta ezin izan, gizajo ura ari uan beti buru nekatzen, nola otezeikean bizi ongi eta lanikan egin gabe.

\*Arratz batean joan uen Villaerreal'ere, sartu uan osteko atetikan indiano baten echean, eta egun sentirako jo zikan Legazpi, ezin jazo ala ontzako urrez zamatua. Asi uan justizia lapurraren billa, baiña alegin guztiak alperrak izan ituan; etzuten ezeren lorratzik topatu. Bitartean bizi uen gure

Pepe len da gero baiño obekiago. Denbora joan, denbora etorri, iñor ez uan oroitzen Villaerreal'go indiano lumatuarekin, baña egun baten asi ziraden zar eta gazte, atsoak etamutikoak, kantari

Pepe, Pepete,  
Iñoren gauzaz  
Zuk echea bete.

»Eldu uen kanta Bergara'ra juezan belarrietara, eta bota dizko Pepe dontsuari bost mandamentuak gañean, eta ortikan zirri eta emetikan galde, aitortu eragin zioten zan bezela Villaerreal'go indianoari eman zion chalma, eta mezede onen saria eman zioten dantzatu eragiñaz nai etzuan pandangua soka batetikan zinzilika».

Ala ba, Pachi, begira zak ondo, Pepete'n ipuiak daukan edo ez, zer ikusirikan; begira zak ongi Anzuela'n dabillen zurrumurrua eldu litekean edo ez juezaren belarrietara. Ik esan duk ire artean: «Anzuela'n ezin nezake kanpiatu diru onekin; laister bat edo batek galdetuko luke: ¿Nondik ateratzen dirade



meza oiek?, eta besten batek erantzungo luke: Apaizan echetikan». Orregatikan esan duk ik: «Saldu zadan echea eta jarri zadan denda, eta jarri zadan ez-ezagun artean inork nere eltzean sartu ez dezan sudurrik eta sinistu dezaten nere ondasunak salbentaren irabaziak ekarri dituala». ¿Ez duk ori alan?

—¿Baiña zer esan nai duk ainbeste itz alperrekin, Michel?

—Esan nai diat, mutill abilla izan aizela, eta aurrera izan nai baduk, eman bear dirakela dozenacho bat ontzako, aiekin igortziaz eskuak chori-zaitzailleari, ateratzen ote degun eguzkitara an kalabozoan usteltzen dagoana.

—Lenago ere esan diat, Michel, ez dedala nik dirurikan. Eta iduki eta ere ¿uste dek orain arte eman ditudanak ez diradela naikoa?

—Begira, Pachi; egin zak nai dekana. Ni banijoak ik zer esan dekan ari esatera..... ikusiko duk nola kantatzen duan. ¡Pachi! ire larrua maitatzen baduk atera itzak amabi ontzako esandakoak.

Pachi'k agiñak estutuaz ezpañetatikan odola ateratzeraino, esan zuan birau izugarri

bat, eta maiko kuchatillatikan atera zituan sei ontzako egina eta bota zituan maian gañean.

— Adiskide — esan zion Michel'ek — sei falta dituk emen.

— Ez zidukat geiago.

— Amabi bear dituk.

Pachi'k bota zuan beste ontzako bat eta beste birau bat.

— ¡Pachi! Ez adi denpora pasa ibilli... betoz beste bostak.

Pachi'k bota zuan beste ontzako bat.

— Animatu adi, guchi falta dituk.

— Ez detala geiago.

— Choria kantuan asiko dala.

Pachi'k bota zuan beste bat.

— Onera beste irurak.

— Iru oiñaztu eroriko aldituk, i eta ni biok kiskaldu gaitezen.

— Pachi, choria amorratzen dagoala kantuan asitzeko.

Pachi'k bota zuan amargarren ontzakoa eta beste juramentu bat.

— Azpertzun nauk ia, Pachi; atera itzak falta diran biak.

—¡Ez diat geiago emango bizirik nagoala larrua kentzen badidate ere!

—Pachi... choriak kantatzen badu, lepo ori estutuko ditek.

Pachi'k bota zuan beste bat.

—Ia ba azkena.

—¡Ezta chiki-chiki egiten banaute ere ez diat besterik emango!

—¡Ai kerten aundia! ¡Ontzako baten go-ra-beragatikan nai duk zintzilikan dantzan ibiltzea! ¡Zer ikusgarri polita egongo aizen mingaiña kana laurden bat kanpora deala!

Au aditu zuanean Pachi'k, bota zuan azkeneko ontzako esanaz:

—To, eta erosi zak berakin ni urkatzeko soka.

• —Zeregin oiek borerreruenak dituk—esan zuan Michel'ek ontzakoak gerrikoan sartuaz.

—Orain edegi zak atea; noan Bergara'ra, artale auek sartzen ote diozkaten ari kaiola ertzen batetikan, eta bigar egun sentirako Lakiola-basoan daukaten chendorrean egon nai nitek, onezkero eske egongo duk ura-ta. Ain zeken ibilli ziñaten nerekin ontzako par-

titzean eze, barriro ere aizkorari eldu bear izan zioat biziko banaiz.

Pachi'k giltza artutzen bazuen bezela artu zuan mai gañean erdi eskutatua zegoan arakin kuchillo bat, eta eman zuan pauso Michel'engana.

—¡Pachi!—esan zion onek pistola bat ateriaz gerrikotikan—¡Pachi! Baldin giltza ezpaduk billatzen atea idikitzeko, onek idikiko dik ire buruan atea edo leioa kuchillo orrek baño obeto.

Pachi'k lotsaturik esan zuan zerbait aopean, eta utzirik kuchilloa edegi zuan atea, eta esmendatu zan Michel.

Bakarrik gelditu zanean Pachi, joan zan kuchatillara, eta ikusi zuanean Michel'ek eramandako ontzakoak utzi zuten utsuna, asi zan birauka buruko illeak ateriaz eta negarrez eskola-ume bat bezela.

Au igaro zanetikan bost edo sei egunera, goiz batean zegoan Pachi bere denda bazterrean, agertu zanean gizon bat karta eskuan zuela. Karta au zan Pachi'rentzat, eta Anzuela borraturik zedukan aren orde z Oñati.

Nola ez zekian irakurten Pachi'k, deitu

zion Mikaela'ri, eta onek ezagutu zuanean Iñazio'na zala, asi zan irakurtzen pozez negarra zeriola. Iñazio'k esaten zuan karta aretan, jakiñean zegoala nola gurasoak ill ziraden, eta laister ikusiko zutela San Blas-ko eleizan aiengatikan Jaungoikoa'ri erregutzen. Esaten zien ere aberastu zala, baña osabaren ondasunak bereganatuta ez, bada berak irabazi zituanekin, euskaldun batek lagunduaz. «Gure Jaungoikoa'k—esaten zuan—kupiturik nere ezbearrarekin, eman dit denbora guchian beste askori eren bizi guztian ematen dien baño ondasun geiago, bada neronek irabazi ditudanaz gañera, len esan dedan euskaldun laguna ill zan, eta ez zualako seniderikan, nik berari nion legeagatik utzi ninduan bere ondasun guztiaren jabe. Badakizute ba; ni nago izugarri aberatsa, eta nere ondasunak izango dirade, nereak bezela nere anai-arrebarenak; baldin, uste dedan bezela, merezia badute.»

¡Ezin esan lezake zenbateraño zan Pachiko'n naigabea karta au irakurri zanean!

Bere anaiak zekartzen ondasunak izan balira osabak utzi zituanak, berarentzat izan

bear zuan nai-ta-naiez irugarren zatia, baña ala ez izanikan, ez zedukan eskubiderik ezertan, eta beldur zan jakiñik Iñazio'k beran ibillera eta egintza gaiztoak, ez ondasunikan eman, baizik kontu, estuak artuko ziezkala.

Au oroitzean damutu zitzaizkion egin zituan gaiztakeriak; ez biotza bigundu zitzaio-lako, baizikan anaiaren beldurrez, eta aurre-ra asi zan arreba eztitzen alegin guztian.

Egun artatikan, orduan arte baño beste bizimodurik izan zuan Mikaela gaiñoak. Ekarrion neskame bat echeko lanak egiteko, jantzi zuan burutikan oñetara, zer nai eta arekin eztitu zuan itz legunakin, eta itz batean, kostea kosta egin zituan alegiñak Mikaela pozik idukitzeko, eta aztu eragiteko aurretik emandako naigabeak eta egun gorriak.

Arrebak, ez jakiñik Pachi'n intentzio markurrak, sinistu zuan Jaungoikoa'k errukiturik berakin ikutu ziola biotzean borrero ari, eta berak uste ez zuala asi zan Pachi maitatzen, azturik artu eragin zion gorrotoa.

## IX

Igande goiz batean Bergara'ko plazan eta amarrak inguruan galai gazte batek esaten zion, arrautza, gazta, eta egazti aurrean zituala zegoan estalki zuridun amonacho bati:

—¿Asko egiten dute arrautzak?

Amonak keskaz begiratuaz esan zion:

—Edo nik lañoak ditut begietan edo be-roi da... baña ¡bai zera!... ura ez zan ain...

—Orrela ¿ez nau ezagutzen Maria'k?

—¡Nere Ama Santisima! — esan zuan amonak, eta jaregiñik mantalean zeduzkan arrautzari, lepotikan eldu zion beso biakin eta laztan emanaz esan zion: ¡lñazio!

Eta amona eta lñazio gelditu 'ziran alkar estutuaz.

—Maria—esan zion aldamenean zegoan atso batek—¿Senide aldezu galai ori?

—Ez det senide, baña seme bati aiña nai diot nik oni—erantzun zuan Maria'k, chichi baño arroago—nere belaunetan azia da au esate baterako. ¡Zer ederra zauden lñazio!

¡Zenbat azi zeran! ¡Ai zure ama bizi balitz!  
¡Zenbat nai zizun Praiska gaisoak! Askotan  
esan oi nion nik: «Seme orrek choratu egin-  
go zaitu zu». Eta don Jose'k esaten zidan:  
«Utziozu, Iñazio du arek bere kutuna-eta».  
¡Zer negargarria, Iñazio, zer negargarria!  
Añ famili ederra utzi joan ziñanean eta  
orain... ¡batzuek illik! eta besteak Jaungoi-  
koa'k daki non.

—¿Zer esaten dezu, Maria? ¿Nere anai-  
arrebak ez daude *Eche alai'an*?

—¿Zer, eztakizu Pachi deabruak Simon  
uztargiñari echea saldu eta Oñati'ra joan zala  
bere arrebarekin?

—¡Ai nere Jaungoiko maitea!— esan zuan  
Iñazio'k buruari elduaz—¡Nere anaiak saldu  
egin duela echea diozu?

—Aditzen dezun bezela. ¡Ark ez badu  
biotzikan! ¡Ark ez badio legerikan iñori!  
¡Berak ill zituan naigabez zure gurasoak!

Iñazio'ri bete zitzaizkon urez begiak eta  
aldatu zuan itz-bidea.

—¿Eta apaiza eta bere echekoak nola  
daude?

—Ala ala ba, Iñazio; don Jose, oso lurra



jota dago, eta Anjel oraindikan ezta saniatu. Orrengatikan ezta ezkondu zure arrebarekin oraindik. Berak esaten duan bezela: «¿zertarako ezkonduko naiz ni neskacha gaiso orrekin bidar edo etzi alargun utzitzeko, edaderik onenean?» Zein dagoan ainbestean ere andra Josepa da; eta ori ark ere bereak ikusi dituala ainbeste joan-etorrikin. Lege aundia dio echeari, eta esan oi dan bezela da emakume on bat. Berak ezer izan ezker ezta ez auzoan negarrik izango. ¡Eta bazenkizu zenbat nai dizun! Beti dabill Inazio gora ta Inazio bera... eta ¿nola ibilli zera baztar oietan?

—Ni, Maria, Amerika'n ongi ibilli eta ongi joan zait, baña ichasoan gaizki. Ni nere ondasun guztiakin netorren ontzia galdu egin zan bidean, eta berakin galdu zan nere iza-tea. Etorri naiz joan nitzan bezelaše.

—¡Ai zer damugarria! Baña ¡zer egingo da! Bizirik zaude eta ori da bearrena. Etzaitte estutu orrengatikan; osasunak lagundu ezker, ezta faltako ogi puska bat... eztago esan bearrrik, gaur alkarrekin joango gera Anzuela'ra; astoa nerekin det eta arechek

eramango ditu tresnarikan badezu. ¿Ezla ala?

—Milla esker, Maria, baña lenbizi Oñati'ra joan nai nuke aiek an dauden ezkerok.

—¡Ondo egiten dezu, Iñazio! Norberan odolekoari legerik ez dionari Jaungoikoa'k ere ezin lagundu leioket. Egia da Pachi dala arpegira begiratutzea merezi ez duana, baña okerrenera jo eta ere, anaia dezu, eta len esan dedan bezela odolak betik esartzen du. ¡Alperrikan da! Beti oi da eche bakoitzean cherren bat! Mikaela bai poztuko dala zu ikusiarekin; ez du gaiñoak Pachi'n antz andirikan; ama berbera dator ura guztian...

Beste ordu bian etzan geldituko Maria'n iturria bezero bat etörri ezpañitza arrautz tratura.

—Orain ba... ¿zer nai dezu Anzuela'rako?

—Eskumuñak echean, Maria, eta denboraz alkar ikusiko degu.

Egun ura igaro zuan Iñazio'k bere zeregin batzuetan, eta biaramon goizean joan zan Oñati'ra.

Mikaela eta Pachi biak zeuden dendan Iñazio atean agertu zanean. Iruren eztarrie-

tatikan atera zan pozezko deadar bat, eta alkarri elduaz gelditu ziraden bat egiñik.

Ezin aditzera eman litezke Pachi'k egin ziozkan pozkeriak Iñazio'ri sinistu eragin naian bere naitasuna, eta guchiago aitortu lezake, bear dan bezela, zeñ gozoa eta aundia zan Mikaela'ren eta Iñazio'ren biotzak betetzen zituan poza.

Piskabat sosegatu ziradenean, Iñazio'k aditzera eman zien anai-arrebari bere ibilleran eta bere bizi moduan joan-etorriak, eta esan zien Maria'ri Bergara'n esan ziona, auda, bere ondasun guztiak ichasoak iruntzirik, arditikan gabe zetorrela.

Iñazio izketan ari zan artean, Pachi'k eta Mikaela'k zeukaten beso banarekin lepotikan ezarrita, baña ez al zuan Pachi'k aditu joan bezin aberatsa zetorrela, alderandu zan anaiagandikan, izurriaz edo atsez beterik etorri balitz bezela Iñazio. Etzuan egin alakorikan Mikaela'k, ezpada eldu zion len baño gogotiago eta estutu zuan bere anai maitea biotzaren kontra; baña Pachi'k egin zion begirakuna bat, aspaldi artan beldurrez eta izerdi otzez bete oi zuten begirakuna

aietako bat, eta Mikaela gaiñoak, zer egiten zuan ezekiala, biotza miñez zatiturik, alde egin bear izan zuan bere animako inazio-gandikan.

—Inazio—esan zion Pachi'k—nik naikoa egin diat orain arte i joan intzan ezkerro gure guraso eta arrebagatikan, eta ez diat uste geiago egiteko zorian arkitzen naizenik. I pobrea ba aiz, ni ere ala nauk. Jan nai baiduk, lana egin zak, nik naikoa diat gure arrebarentzat eta neuretzat ogia irabaztea-ta.

—Ori duk esatea, Pachi, ire echeko atea eta ire biotza ichiak daudela anaiarentzat—esan zuan inazio'k dolorez itzik asmatu ezinik—¡Pachi! zuk zere ehetikan botatzen banazu zakur bat banitza bezela, nik billatuko det beste eche bat, nik nereganatuko dut nere anai madarikatuak saldu zuana, eta bertan biziko naiz nere oñazakin eta nere miserian edo nere ondasun artean...

Eta au esanaz, irten zan dendatikan eta eskuak gurutzatuaz esan zuan:

—¡Nere arrebak ere saldu nau azkenik!  
¡Ai nere Jaungoikoa! ¡Au geiegi da nere indarrarentzako! ¡Egin bedi zure borondateã!

Oñati'tikan Koroso'ra dagoan bidea gora zijoan Iñazio gizajoa, burua makurturik eta noizik beiñean negar tantoa zeriola, oroituaz bere bakardadearekin. Eldu zanean Koroso gañera, utzirik bidea igo zuan aren eskuiko aldetikan zegoan tontor batera; andikan agiri zan San Blas-auzera eta ikusten zan *Echealari*, uso churi bat erramu tartean balego gisa.

—¡O nere jaioteche ederra!— esan zuan Iñazio'k esku-zapiarekin kopeta legortuaz. —¡Eztago zure sukalde baztarrean ama bat negarrez, bere seme maitea urruti dalako! ¡Ni garaitzen naizenean zure atari aurreko inchaurretara, eztu inork egingo pozezko garrazirikan leio oietatik! ¡Ez ama, ez aita, ez arreba eta ez anairikan ezta besoak zabalduaz anchinchinka etorriko errukigarri oni laztan ematera! ¡Ai nere Jaungoikoa! ¿Zergatik ito ez ninduzun ichasoan nere lagunak ito zenduzen bezela? ¿Zergatik eztezu sortu nere biotza ainbeste zauritu baño len?

Oñazari eutsi eziñikan jira zituan begiak beste aldera eta... chilio aundi bat egiñaz asi zan tontorra bera; bidea gora, illeak na-

rraz eta arnasaz ezin beterik zetorren nes-  
kacha gazte bat besoetan estutzera. Neska-  
cha au zan Mikaela, bere animako arreba  
kutuna.

— ¡Inazio! ¡Inazio! ¡Nere Inazio maitea!  
—esan zuan Mikaela'k bere anaiaren lepoti-  
kan zintzilika geldituaz eta aren paparrean  
arpegia eskutatuaz— ¡Zurekin nai det bizi,  
Inazio nerea! ¡Zuri lagundu nai dizut zure  
miserian, anai biotzekoa! Pachi'n beldurraz  
eztizut jarraitu lenago, baña errukiturik zure  
bakardade eta samiñarekin indartu naiz are-  
gandikan iges egiteko. ¡Ai Inazio! ¡Zer arra-  
zoia zuan gure aita zori onekoak esaten  
zuanean Pachi'k biotz gogorra zuala! Pachi  
aberatsa da, eta bota zaitu bere echetikan  
pobrea zeradelako.

—Ez, nere arreba maitea, ez naiz pobrea  
zuk maitatzen banazu —esan zuan Inazio'k  
pozez eroturik— zure naitasuna bakarrik fal-  
ta zitzaidan, arreba biotzekoa; aberatsa naiz,  
izugarrizko ondasunak ditut, orain artean  
izkutatu nai izan ditudanak jakiteagatikan  
leiala otezan nere anai-arrebaren naitasuna.  
An—esan zuan Inazio'k beatzarekin *Eche-*

*alai* erakutsiaz bere arrebari—anche biziko gerade biok, Mikaela maitea, eta nik, nere maitetasun bigunarekin sendatuko ditut zere biotz gaisoak dauzkan zauritu gogorrak.

Eta eskuak emanda alkarri izkutatu zira-den Elosegietan barrena eta Urkillu'n zear, zeruko aingeruak zalez beterik uzteko zorian.

## X

Mikaela eta Iñazio *Eche-alai*'ra ziradenetikan illabetera, goiz batean, Anzuela'ko kale goena gora zijoan amonacho bat bere estameñazko soñeko beltz ederrarekin eta elurra baño zuriago zan estalkian azpitik, kopetacho urdiña zintzilik zuala.

Pertzan ipurdia baño beltzago zan atso batek, ate zirristu batetikan atera zuan burua, bata bestearen gañean bi edo iru estalki zarrekin jantzia.

—¡Manu!— deitu zion amonachoari —ia oneraño.

\* —Presaka nua Pepa eta eztet astirikan oraiñ —erantzun zion Manu'k aurrera joanaz.

— Emakumea, etzaitugu jango — esan zuan Pepa'k, eta atetikin irten da joan ziztaion arri muturretikan arri muturrera pauso egina, katuak lokatza tartean egin oi duten gisa.

—Gaur, eztago zer esanikan, ¿an izango zera?—esan zuan atso beltzak Manu'n aurrean jarri eta esku batekin estalki zarrak aurreratatu bekokian eta beste eskuko beatzarekin sudur zuluak errejistatuaz.

— Bai... ¿eta zer?—esan zion Manu'k.

—¿Zer?... Badakizu zuk, eta beste askok ere gure miseri...

—Bai, bai, badakit zertara zoazen... imposible ezpada, zu bateatu zizuzten ponda izango zuan jarion bat... zuri ez lanzurdea, baizik *Pepa-negar* jarri bear zizuten izena.

—Bai, inoren begiko negarrak, eztit neri ere miñikan ematen, Manu.

—Nik sinistu ori, Pepa, baña esan zazu laister esan bear dezuna.

—Ba, esaten ari nitzan bezela, neu ez naiz ezertarako gauza, ala ere egualdi otz abekin...



—Egualdi otzak baño gaitz geiago egiten dizu barrua geiegi epelduak, Pepa.

— Bai, gure inchaurreak, erak diraden baño soñu andiagoak izaten dituzte, Manu; gure agure kaskalari ere, besoak gortu zaizko dornuari eta kardari eragiteko, baño agiñak geroago eta azkarrago ditu. ¡Aren ogi chikitzea! ¡Aren irintzi bear tristea!... berarentzat lain...

— ¡Isillik egon zaitte! ¡Asko ezagun dute zure senar gizajoan masalla ertzak, ase eta betean dabilhela zuk esan naia dezun bezela! Baña zabiltz azkar, presa dut eta.

— Gaur ba, iñoiz izatekotan, izango dira an eskupekoak; eta zuk don Jose edo andra Josepa'ri esango baziño itz erdicho bat, zergatik, badakizu gu bezelakoak... eta gañera zerri ezur batzuek edo beste edozer gauza echeak dakarrena ez litzake...

— ¿Eta zergatikan joaten etzera zeori?

— ¡Ai Manu! Neretzat arpegi illunak egoten dirade an...

— Merezia izango dezulako.

— ¡Zereko merezi! Iñoren echeko gauzak jakiteagatikan, noizik beñean eramaten

dute bera betekada bat ematera, eta deabru ark gezur eta abar... beti ni char egin.

—Bai, choroak dira bai apaiza eta bai bere echekoak ez igarteko zein zeraden zu eta nor dan zure agure giza joa; bai, naikoa esan dezu, eta banoa—esanaz, iges egin zion Manu'k.

—Gero, ez aztu nik esandakoa—deitu zion lanzurdeak.

—Bai, egon zai—erantzun zion Manu'k —denboraz izango naiz emen eskupekoa kolkoan eta upela chiki bat patarrez betea buruan detala.

Pausoa arin-arin emanaz bazijoan gure Manucho. Esku biakin ertz banatatikan eta okotzarekin erditik eutsiaz, bere panelazko mataliña tolostuaz galtzada zear zetorren Maria'rekin trink egin zuan tellari-buruan; Jaungoikoa'ri eskerrak, etzan mutua, daki-gun bezela, ta esan zion Manu'ri:

—¿Linboan edo non egon zerade oraiñ artean, Manu? ¿Ez aldezu?...

—Isilikan zaude, Mari, ernegatua nago nere artean ere; lanzurde sorgiñak iduki nau nai eta nai ez ordubetea bere betiko negarrak esaten.

— ¡Ai Manu! Orainche, betiko alkartu ditu don Jose'k. ¡Ai ura ikusgarria! Mikaela'k ama Birjiña bat zirudian, eta Anjel'ek San Gabriel. ¡Ikusi baziñu!

— ¿Eta nortzuek izan dituzte lagun?

— ¿Nortzuek izango zituzten, Manu? Andra Josepa eta Iñazio, edo don Iñazio; uste dut don esan litzakiola emen inguruetako aberatzenari, berak nai ez baldin badu ere. ¡Gaizto aundia! ¡Zer patata sinistu eragin zidan Bergara'ko plazan!

— Maria, Jaungoikoa'k bedeinkatu ditza la, merezi dute ta.

— Ala izan dedilla, Manu. Apaiz jauna illabete onetan gaztetu da oso; artu ditu berriez ere lengo kolore eder aiek.

— Maria, zu echekoa zera an, eta ¿jakingo dezu zerbait?

— ¡Jakin ez bada! ¡Bai oriñe! Ba... Iñazio etorri zanean lenbizi egin zuan gauza izan zan, don Jose'n echera joan, eta esatea: don Jose, ni diruz josia nago, baña falta zaizkit aita, ama eta anaia; Anjel ezkondu dedilla Mikaela'rekin, eta beori, don Jose, izango da nere aita; beori, Andra Josepa, nere ama; eta zu,

Anjel, izango zerade nere anaia. Umian ondasunak, dirade gurasoenak, eta orregatikan jakiñean egon bitez nere ondasunak danorenak diradela. Udaberria eta uda igaroko ditugu *Eche-alai*'n eta negua emen. Ez alzuan au esan Iñazio'k, danak alkarri elduaz asi ziraden... baña... iso... an non datozen... goazen ikustera, Manu — esanaz joan ziraden biak eskolako umeak bezela, berriketan egiñaz ta korrika eleiza aldera.

Gizon bi, San Iñazio'n marcha joaz, bata chiolarekin eta bestea atabalarekin; aien ondoren, pago gazteak baño bortitzago ziraden mutil talde baten artean, Anjel; eta aben atzetikan, Mikaela, larrosaz eta krabeliñaz egindako chorta bat baño ederragoago zan neskacha mordo baten erdian, eta guztien jarrai, don Jose, Simon'en eta Iñazio'ren erdian, zijoazen eleizatik apaizaren echera.

—¡Ai Manu!—esan zuan Maria'k—¡Zer danugarria gaur, ez eman beafra güre Jaungoikoa'k ordubeteko bizia Juane eta Praiska zorionekoeri, au ikusi dezaten.

—Bai, arrazoia daukazu Mari, baña zerutikan egongo dirade begira eta... baña ¿zer-

gantikan ote doaz ainbeste lagun korrika bide aldera? ¿Zer ikusgarri otedago an? Goazen geu ere zer ote dan...

Eta esan da egin, amonacho biak joan ziraden anchinchinka.

An zegoan ikuskizuna zan mutil sasoiko bat, zepo batean eskuak sarturik eta soka batekin ukalondoak gogor loturik, lau chendar-men artean zeramaten Deskarga aldera.

—¡Nere Ama Piedadekoa! ¿Zer ikustendut nik?—esan zuan Maria'k esnea baño zuriago eginda —¡Pachi da loturik daramaten ori!  
¡¡Ai gure Jaungoikoa!!

—¡Bera da, bera da!—erantzun zion Manu'k begiak estaliaz —¡Ai Mari! ¡Zenbat arrazoi zuan Praiska gaiñoak, esaten zuanean Pachi'k kartzelaren baten uzteldu bear zuala!

Pachi'k ikusi zuan Simon uztargiña don Jose'n ehekoleio batean, eta gelditu nai izan zuan arekin itz bat edo bi egiteko, baña chendar-me batek «aurrera» esanaz jo zuan bizkarrean fusilaren ipurdiaz, eta eskutatu ziraden bidea gora.

¡¡Choriak kantatu egin zuan!!



